



Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 11ko 3/1990 FORU ARAUA.¹

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA: IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA.....	3
1. artikulua. Izaera eta xedea	3
2. artikulua. Aplikaziozko araudia, eta zergaren aplikazio esparrua eta ordainarezpena.	3
2.bis artikulua. Ohiko egoitza	5
II. KAPITULUA: EGITATE ZERGAGARRIA.....	7
3. artikulua. Zergagaia	7
4. artikulua. Presuntzioak	10
5. artikulua. Salbuespenak	10
III. KAPITULUA: SUJETO PASIBOAK ETA ERANTZULEAK	11
6. artikulua. Sujeto pasiboak	11
7. artikulua. Egozpen errejimena	11
8. artikulua. Erantzuleak	11
IV KAPITULUA: OINARRI ZERGARRIA.....	12
1. Sekzioa. : <i>Arau Orokorrak</i>	12
9. artikulua. Oinarri Zergagarria	12
10. artikulua. Oinarri ezargarria zehaztea	13
2. Sekzioa. : <i>Arau Bereziak "mortis causa" eskurapenatarako</i>	13
11. artikulua. Ondasunak gehitzea	13
12. artikulua. Karga Kengarriak	14
13. artikulua. Zor kengarriak	15
14. artikulua. Gastu kengarriak.....	15
3. Sekzioa: <i>Arau bereziak irabazizko "inter vivos" transmisioatarako</i>	15
15. artikulua. Karga kengarriak	15
16. artikulua. Zor kengarriak	16
4. Sekzioa: <i>Balore frogaketa</i>	16
17. artikulua. Arau Orokorrak	16
18. artikulua. Foru Diputazioak eskuratzeko duen eskubidea.....	17
V. KAPITULUA: OINARRI LIKIDAGARRIA	17
19. artikulua. Oinarri likidagarria	18
VI. KAPITULUA: ZERGA ZORRA	21
20. artikulua. Likidazio erregelak	21

¹ Azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Aginduak, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldatuta horri buruzko arauak ematen dituenak, xedatutakoari jarraiki, Foru Arau honek pezetatan jasotzen dituen zenbateko guztiak eurotara aldatuak geratzen dira. (Abenduaren 13ko GAO, 238. zk.a)



21. artikulua. Kuota osoa.....	22
III. TARIFA	23
22. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitzagatiko kenketa.....	24
VII. KAPITULUA: SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA	24
23. artikulua. Sortzapena.....	24
24. artikulua. Zorra zehazteko eskubidea iraugitzea.....	25
VIII. KAPITULUA: ARAU BEREZIAK	25
25. artikulua. Gozamena eta beste instituzio batzuk.....	25
25. bis artikulua. Gozamena testamentu-ahalordearen menpeko herentzietan.....	26
25. ter artikulua. Testamentu-ahalordea erabiltzea.....	27
25. quater artikulua. Herentzia bidezko eskurapenen metaketa.....	28
25. quinquies artikulua. Itzulketetan likidatzeko erregelak.....	28
26. artikulua. Zatiketa eta adjudikazio soberakinak.....	29
27. artikulua. Oinordetza arbuiatzea eta uko egitea.....	30
28. artikulua. Dohaintza bereziak.....	30
29. artikulua. Dohaintzak, kosturik gabeko gainerako eskualdaketa parekagarriak, eta mortis causa eskurapenak metatzea.....	31
30. artikulua. Bizitzaren gaineko aseguruengatik jasotako kopuruen metaketa.....	31
IX. KAPITULUA: OBLIGAZIO FORMALAK	31
31. artikulua. Autolikidazioa.....	31
31. bis artikulua. Komisarioaren betebeharrak testamentu-ahalordearen menpeko herentzietan.....	32
32. artikulua. Agintari, funtzionari eta partikularren eginbeharrak.....	33
33. artikulua. Ez aurkeztearen eraginak.....	34
X. KAPITULUA: ZERGAREN GESTIOA	35
1. Sekzioa. : <i>Likidazioa</i>	35
34. artikulua. Arau Orokorrak.....	35
35. artikulua. Konturako likidazio partzialak.....	35
2. Sekzioa. : <i>Zergaren ordainketa</i>	35
36. artikulua. Zerga ordaintzea.....	35
3. Sekzioa: <i>Ordainketaren atzerapen eta zatikapena</i>	36
37. artikulua. Arau Orokorra.....	36
38. artikulua. Gerorapena eta zatikapena.....	36
39. artikulua. Gerorapen eta zatikapen kasu bereziak.....	37
XI. KAPITULUA: ARAUHAUSTEAK ETA ZEHAPENAK	37
40. artikulua. Zehapen araubidea.....	37
Lehen Xedapen gehigarria. Parekatzeak	38
XEDAPEN IRAGANKORRAK	38
Lehena.....	38
Bigarrena.....	38
Hirugarrena.....	39
Laugarrena.....	39
Bostgarrena.....	39
Seigarrena. (indargabetua).....	40
Zazpigarrena.....	40
Zortzigarrena. Sozietate gardenen erregimen iragankorra.....	40
AZKEN XEDAPENAK	41
Lehena.....	41
Bigarrena.....	41
Hirugarrena.....	41
Laugarrena. (ezabatua).....	41

ZIOEN AZALPENA

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga erregulatzen duen foru araudia aspaldi ez dela onetsi zen martxoaren 23ko 5/1987 Foru Arauaren bitartez.



Dena den, beharrezkoa zen erregulazio berri bat mamitzea, izan ere Estatuaren esparruan abenduaren 18ko 29/1987 Legea onetsi bait zen, eta jarraian beste Lurralde Historikoetako erregulazioak.

Araudi berri honek egokipen ezin hobea du zergazko sistemaren barruan, definizio zehatzak emanez zergaren konfigurazioa itxuratzeko, zergazko sistema orokorrarekin bat eginez beste zerga batzuei buruzko aipuak egiten bait ditu, Zerga Foru Arau Orokorrarekin ere.

Gainera, erregulazio honek, Kontzertu Ekonomikoaren Legeko 26. artikulua babespean emana berrikuntzak aurkezten ditu estatukoarekiko eta horien garrantzia nabarmendu beharra dago.

Funtsean mantentzen da bizitzaren gaineko Aseguruengatik jasotako kopuruak ez metatzea, eta dudarik gabe garrantzi haundiko kenketa batzuk ezartzen dira oinarri ezargarrarian. Halaber, zergaren tarifak dauzkan karga motek aurreko Foru Arauak ezarritako ildoari darraio.

Bestalde, zergaren jestioan berrikuntzak sartzen edo sendotzen dira, hala nola, likidazio bulegoei, aitorenak aurkezteko epeei eta ordainketaren atzerapen eta zatikapenei dagozkienak, oso garrantzitsuak ez bairik gabe.

Azkenean, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, pertsona fisikoa sujeta pasibo den zergatzat jotzea berresten da Foru Arau honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1988rako Aurrekontuari buruzko Foru Arauaren Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 2. zenbakian aurrikusitakoarekin bat etorriz.

I. Kapituluak: Izaera eta aplikazio eremua

1. artikulua. Izaera eta xedea

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak, izaera zuzen eta subjektibokoa, pertsona fisikoek irabazizko eran bereganatutako ondarearen gehikuntzak kargatzen ditu, Foru Arau honetan ikusten diren moduetan.

2. artikulua. Aplikaziozko araudia, eta zergaren aplikazio esparrua eta ordainarezpena.^{2 3}

1.⁴ Foru arau honetan xedatutakoa bete behar pertsonalarengatik aplikatuko da, zergadunak Espainian duenean ohiko bizilekua, honako kasutan:

² Artikulu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUaren II Kapituluako 6. artikulua bat zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

³ 2. artikulua honen izenburua, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren I Kapituluako 5. artikuluko lehenengo apartatuaren bat zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.



a) «Mortis causa» eskurapenetan, sortzapenaren egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoenean.

b) Bizitza aseguruaren onuradunek aseguratuaren heriotzarengatik kopuruak jasotzen dituztenean, sortzapenaren egunean aseguratuaren ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoenean.

c) Ondasun higiezinaren eta haien gaineko eskubideen dohaintzetan, ondasun horiek Gipuzkoan daudenean. Ondasun higiezinak atzerrian badaude, sortzapenaren egunean dohaintza-hartzailearen ohiko bizilekua Gipuzkoan dagoenean.

Ondorio horietarako, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 314. aipatzen dituen baloreen doako eskualdaketak.

d) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, baldin eta sortzapenaren egunean dohaintza-hartzailearen ohiko bizilekua Gipuzkoan badago.

Aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako kasuetan, kausatzailearen bizilekua atzerrian badago, foru arau honetan xedatutakoa aplikatuko da zergadunaren bizilekua Gipuzkoan dagoenean.

Aurreko a), b) eta d) letretan ezarritakoa gorabehera, kausatzaileak, aseguratuak edo dohaintza-hartzaileak denboraldiko egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean aurreko 5 urteen barruan, zergaren sortzapen egunetik kontatuta, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren lurralde erkideko arauak aplikatuko dira. Arau hori ez zaie aplikatuko Euskadiko Autonomia Estatutuaren 7.2. artikulua araberako euskal herritartasunaren izaera politikoa gorde dutenei.

Estatu espainiarrak eta Euskal Administrazio Publikoak atzerrian dituzten ordezkari eta funtzionarioak betebeharrak pertsonalarengatik egongo dira zerga honi lotuta, apartatu honetan jasotako kasuetan, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren arauetan subjektu pasibo horientzat ezarritako dauden zirkunstantzia eta baldintza berberen arabera.

2.⁵ Foru arau honetan xedatutakoa betebeharrak errealarengatik aplikatuko da, zergadunak atzerrian duenean bizilekua, honako kasuetan:

⁴ Apartatu hau 1/2018 Foru Dekretu-Arauko 3. artikulua aldatu du. Aipatutako 1/2018 Foru Dekretu-Arauk, ekainaren 19koak, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, eta Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen dituenak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen abenduaren 28ko 10/2017 Legeak sartu dituen aldaketak haien barruan txertatzen ditu. Foru Dekretu-Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/06/21eko GAO), eta 2017ko abenduaren 30etik aurrera ditu ondorioak.

⁵ Apartatu hau 1/2018 Foru Dekretu-Arauko 3. artikulua aldatu du. Aipatutako 1/2018 Foru Dekretu-Arauk, ekainaren 19koak, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, eta Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen dituenak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen abenduaren 28ko 10/2017 Legeak sartu dituen aldaketak haien



a) Edozein motatako ondasun eta eskubideen eskurapenetan, baldin eta, Euskadin kokatutako ondasun eta eskubideen balioa lurralde erkidean kokatutakoena baino handiagoa izanik, Gipuzkoan kokatutako balioa beste bi lurralde historikoetako edozeinetan kokatutakoena baino handiagoa bada.

Ondorio horietarako, ondasunak eta eskubideak lurralde jakin batean daudela joko da, lurralde horretan kokatuta daudenean, bertan erabil daitezkeenean edo han gauzatu behar direnean.

b) Bizitza aseguruaren kontratuetatik eratorritako kopuruak jasoz gero, kontratua Gipuzkoan egoiliartutako aseguru-etxeekin egin denean, edo kontratua Gipuzkoan izenpetu denean bertan jarduten duten atzerriko entitateekin.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainaraziko du zerga, aurreko apartatuetan jasotakoa kasuetan:

4. Dohaintza emaile berak hartzaile berari ondasun edo eskubideak dohaintzan ematen dizkionean eta, aurreko apartatuen aplikazioaz, etekina Gipuzkoako lurralde historikoan eta beste edozein zerga administrazioaren lurraldean sortu dela ulertu behar denean, Gipuzkoako Foru Aldundiari kuota hau egokituko zaio: eskualdatu diren elementu guztien balioari foru arau honen arabera aplikatu beharreko batez besteko tasa dohaintzan eman diren elementuen balioari aplikatuz ateratzen dena.

5. Dohaintzak metatzea bidezkoa denean, Gipuzkoako lurralde historikoari beste kuota hau egokituko zaio: foru arau honen arabera elementu metatu guztien balioari aplikatu beharreko batez besteko tasa gaur egun eskualdatutako ondasun eta eskubideen balioari aplikatuz ateratzen dena.

Horretarako, metatutako ondasun eta eskubide guztiak honako hauek izango dira: aurreko dohaintzetatik datozenak eta egun eskualdatu direnak.

6. Artikulu honetan xedatutakoa ulertu behar da Estatu Espainiarrak sinatu eta baieztatu edo atxikimendua eman dien nazioarteko itun eta hitzarmenetan jasotakoa eragotzi gabe.

2.bis artikulua. Ohiko egoitza.⁶

1. Aurreko artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ondoko arau hauek elkarren segidan erabiliz ulertuko da pertsona fisikoek ohiko egoitza Gipuzkoan dutela:

barruan txertatzen ditu. Foru Dekretu-Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/06/21eko GAO), eta 2017ko abenduaren 30etik aurrera ditu ondorioak.

⁶ 2.bis artikulua hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren II Kapituluko 6.artikuluaren bi zenbakiak erantsi du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).



1.- Zergaren sortzapenaren aurreko eguna amaitzen den aurreko lehen urtean, egunetik egunera zenbatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan egun gehiago eman direnean, egun gehiago igarotzea Gipuzkoan beste bi lurralde historikoetako bakoitzean baino.

Gipuzkoan pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi baterako kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Aurkako frogarik ezean, pertsona fisiko bat Gipuzkoan bizi dela ulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan kokatuta dagoenean.

2.-⁷ Interesen gune nagusia Gipuzkoan duenean. Zirkunstantzia hori betetzen dela ulertuko da pertsona fisiko batek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarriaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortua izanik, Gipuzkoan lortzen duen oinarri ezargarria beste bi lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino handiagoa denean. Bi ondorio horietarako, kapital higikorretik eratorritako errentak eta ondare irabaziak eta egotzitako oinarri ezargarriak hortik kanpo geratzen dira.

3.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako azken egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dagoenean.

Bigarren araua aplikatuko da baldin eta lehenengoan xedatutakoari jarraiki ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezein lurraldetan -komun edo foralean- zehaztea. Hirugarrena, berriz, lehen eta bigarren arauak aplikatu ondoren zirkunstantzia hori bera gertatzen denean ezarriko da.

2. Lurralde espainiarrean egoitza izan arren, lurralde horretan urte naturaleko 183 egun baino gehiago ematen ez duten pertsona fisikoak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliarzat hartuko dira, beren jarduera enpresarial edo profesionalen nahiz interes ekonomikoen gune nagusia edo oinarria euskal lurraldean kokatuta dagoenean.

Pertsona fisikoek, aurreko paragrafoan esandakoarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoan dutenean beren egoitza, Gipuzkoan bizi direla joko da beren jarduera enpresarial edo profesionalen gune nagusi edo basea nahiz beren interes ekonomikoena bertan kokatzen bada.

3. Pertsona fisiko batek ohiko egoitza Gipuzkoan duela ulertuko da lurralde espainiarrean egoiliarra dela uste denean, legez banandu gabeko ezkontidea eta haren menpe dauden adingabeko seme-alabak Gipuzkoan bizi direlako, bestelakorik frogatzen ez den bitartean.

4. Bizilekua aldatzearen helburu nagusia zerga gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriorik edukiko.

⁷ 2.arau hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren I Kapituluako 5.artikuluko bigarren apartatuaren bat zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.



II. Kapituluak: Egitate zergagarria

3. artikulua. Zergagaia.⁸

1. Zergagaitzat joko dira:

a)⁹ Ondasun eta eskubideak herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza-titulu bidez eskuratzea.

Besteak beste, hauek dira, herentzia eta legatuaz gain, oinordetza-tituluak zerga honen ondorioetarako:

a') «Mortis causa» dohaintza.

b') Oinordetza kontratu edo itunak, haien eragina noiznahi gertatzen dela ere.

Ondorio horietarako, uneko eraginkortasuna duen oinordetza-ituna oinordetza-titulutzat hartuko da, bakar-bakarrik, ondasun zehatz baten titulartasuna esleitzea dakarrenean eta esleipen hori xedapen zabalago baten parte ere denean, non beharrezkoa baita gutxienez beste elementu bat egotea oinordekoen izendapenari lotuta, tresna itundu batean, beste ondare-elementu batzuei dagokienez. Beste edozein kasutan, dohainik eta «inter vivos» egindako negozio juridikotzat hartuko da.

Nolanahi ere, uneko eraginkortasuna duen oinordetza-itun bati ez zaio exijituko, oinordetza-titulutzat hartzeko, aurreko paragrafoan aipatutako eduki osagarria izatea, titulartasuna esleitzen deneko ondasun zehatza izendatzailearen ondareko elementu bakarra bada.

c') Enpresa eta entitateek, oro har, hildako kide edo enplegatuen senideei ematen dizkieten kopuruak jasotzeko eskubidea dakarten oinordetza-tituluak, kopuru horien modalitatea edo izena zeinahi direla ere, baldin eta berariaz xedatuta ez badago kopuru horiek zergapetzekoak direla foru arau honetako 3. artikulua 1. apartatuko c) letran edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ezarritakoaren arabera.

d') Euren lana egiteagatik testamentugileek albazeei esleitutako diru kopuruak jasotzeko eskubidea ematen dutenak, kopuru horiek herentziako ondasunen balio egiaztatuaren 100eko 10 gaitzen dutenean.

e') Ezkontza-itunetan oinordekoa izendatzea.

⁸ Artikulu hau Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 8. xedapen gehigarriak aldatu du 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

⁹ Letra hau abenduaren 28ko 7/2015 FORU ARAUAREN 3. artikuluko lehen ordinalak aldatu du. Foru arau horrek Zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri zen indarrean (2015-12-28ko GAO). Aldaketak 2015eko urriaren 3tik aurrerako ondorioak ditu.



f') Komisarioak testamentu-ahalordea erabiltzetik datozen egintzak, hartzen duten forma zeinahi dela ere.

¹⁰g') Uko egiteko oinordetza-itunak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. apartatuko lehen tartekian araututakoak.

Hala ere, uko egileak oinordetza-eskubideen zati bati uko egiteko itun baten ondorioz eskuratzen baditu ondasun eta eskubideak, eskurapena kasu batean bakarrik hartuko da oinordetza-titulutzat: ondasun eta eskubideen esleipen hori xedapen zabalago baten parte denean eta xedapen horretan, gutxienez, badagoenean beste elementu bat oinordekoen izendapenari lotuta tresna itundu batean, beste ondare elementu batzuei dagokienez. Beste kasu guztietan, eskurapena inter vivos egindako doako negozio juridikotzat hartuko da.

Oinordetza-eskubide guztiei uko egiteko oinordetza-itunetan, uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzen baditu are izendatzailea hil ondoren ere, eskurapen hori inter vivos egindako doako negozio juridikotzat hartuko da hurrengo b) letran ezarritakoarekin bat, oinordekoei legokiekeen tributazioa ezertan eragotzi gabe.

¹¹b) Ondasun eta eskubideak eskuratzea dohaintzaz edo inter vivos egindako doako beste edozein negozio juridikoren bidez.

Dohaintzaz gainera, honako hauek hartzen dira, besteak beste, inter vivos egindako doako negozio juridikotzat, zerga honen ondorioetarako:

a') Zorra eskuzabal izateko asmoz barkatzea, osorik zein zati batean.

b') Pertsona jakin baten alde egitea uko eskubideei.

c') Beste baten zorra kitatzeko betebeharra kontraprestaziorik gabe bereganatzea, zergaren foru arauak 16. artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik.

d') Epaiketa edo arbitraje batean bestearen alde atzera egin edo amore ematea, eskuzabal izateko asmoz, eta, orobat, transakzio bat egitea eta hortik asmo berberaz egindako uko egite bat, atzera egite bat edo amore emate bat etortzea.

e') Bizitzaren gaineko aseguru kontratua, aseguratuak bizirik iraunez gero, eta banakako aseguru kontratua, kontratugilea ez den aseguratu hilez gero, baldin eta, kasu batean eta bestean, onuraduna kontratugilea ez bada.

¹⁰ Letra hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

¹¹ Letra hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).



f) Uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea hirugarren baten herentziako oinordetza-eskubideak xedatzearen ondorioz, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. apartatuko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat.

c)¹² Bizi aseguruaren kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak, aseguruaren kontratatu duena eta onuraduna pertsona bera ez bada, 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 18.a) artikuluan berariaz erregulatutako kasuak salbu.

2.¹³ Honako hauek ez daude lotuta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari:

a) Aurreko zenbakian aipatu diren ondare gehikuntzak, pertsona juridikoek lortutakoak, Sozietateen gaineko Zergari lotuta egongo baitira.

b) Baimendutako jokoetan lortutako sariak.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotuta dauden gainerako sari eta kalte-ordainak.

d) Entitate publiko zein pribatuek emandako diru laguntzak, bekak, sariak, primak, haborokinak eta sorospinak, ongintza, irakaskuntza, kultura, kirol edo gizarte ekintzako xedeekin emandakoak direnean.

e) Gizarte aurreikuspeneko planen onuradunek jasotzen dituzten prestazioak, betiere xedatuta badago horrelako prestazioak sartzekoak direla horiek jasotzen dituenaren Errenta Zergaren oinarri ezargarrian.

f) Korporazioek, elkarteek, fundazioek, sozietateek, enpresek eta bestelako entitateek langileei, enplegatuei eta soldatapekoei emandako zenbatekoak, prestazioak edo onurak, baldin eta zuzenean edo zeharka lan kontratu baten ondorio badira, entitate horiek hitzartutako aseguru baten bitartez ordainduak izan arren.

g) Hartzekodun batek aurreko zor bat ordainduko dela bermatzeko egindako biziaren aseguruaren kontratu baten onuradun gisa jasotako zenbatekoak, baldin eta zirkunstantzia horiek behar bezala frogatuta badaude.

h) Mendetasun ertain edo handiaren arriskua babesteko aseguru pribatuei hirugarren pertsonen alde egindako ekarpenak, ezkontidearen edo izatezko bikote-lagunaren alde egindakoak, eta pertsona desgaituen alde eratutako

¹² Letra hau uztailearen 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 2. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

¹³ Apartau hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAREN 2. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).



gizarte aurreikuspeneko sistemei egindakoak, hain zuzen ere, abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 72. eta 74. artikuluetan aipatuak.

4. artikulua. Presuntzioak.¹⁴

1. Kostu gabeko eskualdaketa bat izan dela ulertuko da, zerga erregistroetatik edo Administrazioaren esku dauden datuetatik ondorioztatzen denean pertsona baten ondarea gutxitu dela eta, aldi berean edo geroago, baina betiere foru arau honen 24. artikuluan jasotako irauingitze epearen barruan, ezkotidearena, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-lagunarena, ondorengo ahaideena, oinordekoena edo legatudunena handitu dela.

2. Kostu bidezko eskurapenak aurreko ahaideek egiten dituztenean adingabeko ondorengo ahaideen ordezkartzan, ulertuko da adingabeen alde kostu gabeko eskualdaketa bat egin dela eskualdatutako ondasun edo eskubideen balioagatik, non eta ez den frogatzen adingabeak bazituela alde aurretik eskurapen hori egiteko behar besteko ondasun edo eskubideak, eta hura egiteko erabili direla.

3. Aurreko zenbakietan aipatu diren presuntzioak interesatuei jakinaraziko zaizkie, egoki irizten dituzten alegazio eta frogak aurkez ditzaten, bidezko likidazioak egin aurretik.

4. Ondasun edo eskubideak ondorengo ahaideen edo adoptatuen alde eskuratzen badira, dohaintzaz edo «inter vivos» egindako doako beste negozio juridiko baten bidez, eta eskualdaketa hori egin aurreko lehen bost urteen barruan ondasun edo eskubide horiek beste ondorengo ahaide batek edo adoptatu batek lehenagotik eskuratu baditu aurreko ahaidearen edo adoptatzailearen alde, dohaintzaz edo «inter vivos» egindako doako negozio juridiko baten bidez, eskualdaketak tributatu du lehen dohaintza-emaeleak azken dohaintza-hartzailearekin duen ahaidetasuna kontuan hartuta.

5. artikulua. Salbuespenak.¹⁵

Zerga honetan salbuetsita daude:

1. Baserria eta bere lurak aurreko ahaideek ondorengoei kosturik gabe eskualdatzea, betiere finka hori nekazaritza, basogintza edo abeltzaintzarako erabiltzen bada, eta bertan eskualdatzaileak pertsonalki jarduten badu.

¹⁴ Artíkulu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAREN 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).

¹⁵ Artíkulu hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAREN 2. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2012/12/28ko GAO).



Eskualdaketa salbuetsita egoteko, ezinbesteko baldintza izango da eskuratzailerak pertsonalki ustiatzea, gutxienez 5 urtez, baserria eta lurrak.

2. Funtzionario aktibo eta pasiboek, eta langileek, euren heriotzaren ondoren sortuta eta jaso gabe uzten dituzten soldatak eta bestelako ordainsariak.

3. Bizitza aseguruaren kontratuengatik jasotako diru kopuruak, izaera zibil nahiz merkataritzako eragiketa nagusi bat babesteko hitzartzen direnean. Salbuespen honen muga zor den zenbatekoa izango da, eta hortik gorako kopuruagatik, halakorik bada, zerga ordaindu beharko da.

III. Kapituluak: Sujeto pasiboak eta erantzuleak

6. artikulua. Sujeto pasiboak.

Zergadun bezala Zerga ordaintzeko beharra izango dute:

- a) "Mortis causa" eskurapenetan, kausadunek.
- b) Dohaintzetan eta gainontzeko irabazizko "inter vivos" transmisio erkarrietan, dohain hartzaileak edo haiek mesede egindakoak.
- c) Bizitzaren gaineko aseguroetan, onuradunek.

7. artikulua. Egozpen errejimena.

Sozietate zibilek, jaraunspen banatugabeek, ondasun erkidegoek eta nortasun juridikorik izan gabe batasun ekonomiko edo aparteko ondare zergagarria osatzen duten gainontzeko erakundeek irabazizko moduan eskuratutako ondasun eta eskubideak, aurreko 3. artikuluko 2. pasarteak ezarritakoaren kalterik gabe, sozio, jaraunse, erkide eta partaideei esleituko zaizkie, hurrenez hurren, kasuan kasuko arau edo hitzarmen aplikagarrien arabera. Baldin eta horiek modu fedemaileaz Administrazioari konstaraziko ez baliote, beraien artean hainbanatuz esleituko litzaizkieke.

8. artikulua. Erantzuleak.

1.¹⁶ Hurrengo hauek izango dira zergaren ordainketan erantzule subsidiarioak, non eta Zergen Foru Arau Orokorrek erantzukizun solidarioari buruz ezartzen dituen arauak aplikagarri ez diren:

- a) Gordailu, berme edo kontu korronteak "mortis causa" eskualdatzen direnean, eskudirua eta balore gordailatuak entregatu edo eratutako bermeak itzuli dituzten bitartekari finantzarioak eta gainontzeko entitate edo pertsonak.

¹⁶ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).



Ondorio horietarako, helburu bakarra “mortis causa” eskualdaketa kargatzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaintzea denean, ez da ulertuko eskudirua edo balore gordailatuak entregatu direnik edo bermeak itzuli direnik.

b) Kontratuetan oinordeko edo izendatu gisa ageri diren onuradunei zenbatekoak ematen zaizkienean, ordainketa horiek egiaztatzen dituzten aseguru entitateak.

Ondorio horietarako, aseguru kontratuen onuradunei zenbatekoak ez zaizkiela ematen ulertuko da ordainketa horren helburu bakarra Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaintzea bada.

c) Herentziaren parte diren balore-tituluak eskualdatzean bitartekari gisa dihardutenak.

Ondorio horietarako, ulertuko da bitartekari horiek ez direla zergaren erantzule baldin eta oinordekoen aginduz behar diren baloreak saltzera bakarrik mugatzen badira eta horren helburu bakarra mortis causa eskualdaketa kargatzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaintzea bada.

Aurreko apartatuetan jasotako zerga ordainketa, Zergabilketa Erregelamenduak jasotakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren entitate laguntzaileen bidez gauzatu daiteke edo, bestela, onuradun edo oinordekoei Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean egindako banku txekearen bidez.

2. Edozein zerga nahiz exakzio estatal, autonomiko edo lokaleko sujeta pasiboan aldaketari baimena ematen dion funtzionaria ere erantzule subsidiarioa izango da aldaketa horrek zuzenean nahiz zeharka zerga honek kargaturiko eskurapen bat suposatzen duenean eta alde zuzenetik horren ordainketa ziurtagiria eskatu ez badu.

IV Kapituluak: Oinarri zergaria

1. Sekzioa. : Arau Orokorak

9. artikulua. Oinarri Zergagarria.

Zergaren oinarri zergagarria honela osaturik dago:

a) “Mortis causa” transmisioetan kausadun bakoitzaren eskurapen indibidualaren balio garbia, horrelakotzat ulertuz ondasun eta eskubideen balio erreala kengarriak lirakeen karga eta zorrek minoratua.

b) Dohaintzetan eta gainontzeko “inter vivos” irabazizko transmisio erkagarrietan eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbia, horrelakotzat ulertuz ondasun eta eskubideen balio erreala, kengarriak lirakeen karga eta zorrek minoratua.

c) Bizitzaren gaineko aseguruetan onuradunak jasotako kopuruak.



10. artikulua. Oinarri ezargarría zehaztea.¹⁷

Oro har, oinarri ezargarría Zerga Administrazioak ezarriko du zuzeneko zenbatespeneko erregimenean, foru arau honek eta 2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorak, 52. artikuluan ezarritako salbuespenak baino ez eginda.

2. Sekzioa. : Arau Bereziak “*mortis causa*” eskurapenatarako

11. artikulua. Ondasunak gehitzea.

1.¹⁸ *Mortis causa* moduko eskurapenetan kausadun bakoitzaren partaidetza zehazteko, honako hauek joko dira herentziazko ondasunen zatitzat:

a) Hil aurreko urtebetara arte oinordetzaren kausatzailearenak izan ziren era guztietako ondasunak. Dena den, baldin eta behar bezala frogatzen bada ondasun haiek berak eskualdatu zituela eta oinordeko, legatudun, hirugarren mailarainoko ahaide edo horietako edozeinen ezkontidea edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotako izatezko bikote laguna ez den pertsona baten eskuan daudela. Uste hori indargabetuta geratuko da baldin eta modu nahikoan zuzitzen bada ondasunen barruan balio berdinarekin eskudirua edo beste ondasun subrogatu batzuk ondasun desagertuen orde zaudela.

b) Hil aurreko 3 urteetan kausatzaileak ordain truke usufruktuan eta oinordeko, legatudun, hirugarren mailarainoko ahaide batek edo horietako edozeinen ezkontideak edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotako izatezko bikote lagunak, berriz, jabetza soilean eskuratu dituen ondasun eta eskubideak.

c) Hil aurreko 4 urteetan kausatzaileak eskualdatu zituen ondasun eta eskubideak, haien usufruktua edo eskuratzailaren beste batzuen edo beste edozein biziarteko eskubide beretzat erreserbatuta, salbu biziarteko errenta aseguruetan lege zehaztutako erakundeekin kontrataturiko eragiketa horietako bat denean; eta

d) Gordailatu ziren eta ordezkagiriak endosatu zitzaizkien baloreak eta efektuak, baldin eta endosatzailea hil aurretik haiek erretiratu ez baziren edota endosua gordailuzainaren liburuetan jasota geratu ez bazen, eta, halaber, endosatuak izan ziren balore izendunak, baldin eta transferentzia erakunde jaulkitzailearen liburuetan jasota utzi ez bazen kausatzailea hil aurretik.

¹⁷ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

¹⁸ 1 apartatu hau izatezko bikoteen zerga erregimenari buruzko abenduaren 15eko 20/2003 FORU ARAUaren 4. artikuluko 3. apartatuak aldatu du. Foru arau hau 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. Halere, aplikazioa zergadunarentzat onuragarriagoa denean, 2003ko maiatzaren 24tik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO 2003-12-22).



Presuntzio hori ez da emango baldin eta eskualdatutako ondasun edo efektuen prezioa edo horren baliokidea saltzailearen edo lagatzailearen ondareari gehitu zaiola nahikoa konstarazten bada eta bere jaraunspenaren inbentarioan azaltzen bada, kontutan hartu beharrekoa dena zergaren likidaziorako, edota aski zurrizten bada balore nahiz efektuen erretiratzea nahiz endosuaren jasotzea gauzatzerik ez dela egon kausatzailea hil aurretik, beronen eta endosatzailearen borondaterekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik. Paragrafo honetan xedatutakoa aurreko a), b) eta c) letretan aurreikusitakoaren kalterik gabe ulertuko da.

2. Aurreko pasarteko c) eta d) hizkiek aipatzen dituzten eskuratzalea eta endosatzaileak legatuduntzat jaun izango dira jaraunslea ez beste pertsona batzuk balira.

3. Baldin eta artikulua honetan xedatutakoa betez Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergagatik esijigarria litzatekeen kuota haundiagoa balitz Ondare Transmisio eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan eskuratutakoa baino, hala balitz, azkenagatik ordaindutakoa harengatik ordaindu beharrekotik kenduko da.

4.¹⁹ Baldin eta interesatuek ondasun eta eskubideak jaraunspen ondasuntzari gehitzea errefusatzen badute artikulua honetan ezarritako presuntzioen arabera, haien balioa oinarri ezargarritik kanpo utziko da, harik eta sortutako auzia administrazio bidean behin betiko ebatzi arte.

Orobat, behar den kasuetan, aplikagarriak izango dira, baita ere, zergen foru arau orokorrean eta ondarearen gaineko zergaren foru arauan titulartasunari edo kotitulartasunari buruz jasotzen diren presuntzioak.

²⁰5. Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itunen kasuan, artikulua honetan ezarritako presuntzioak aplikatzearen artikulua honetan bertan aipatzen diren epeak konputatzeko, eskualdaketa gertatzen den unea hartuko da erreferentziatzat.

12. artikulua. Karga Kengarriak.

Beren gainean zuzenean ezarrita azaltzen diren betirako, aldi baterako izaeradun edo redimibleak diren eta beren kapitala edo balioa benetan murrizten duten kargak, hala nola, zentsuak eta pentsioak soilik izango dira kengarriak ondasunen balio errealetik, eta ez dira horrelakotzat joko hartzailearen obligazio pertsonala sortzen dutenak, ez eta hipoteka eta bahitura bezala transmitituaren

¹⁹ Apartatu hau ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUAREN azken xedapenetako hirugarreneko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Ondarearen gaineko Zerga onartu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2018/06/19ko GAO).

²⁰ Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).



balioaren murrizketa ez dakartenak, kasua balitz, bermatutako zorrak kendú ahal izatearen kalterik gabe hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak ematen badira.

13. artikulua. Zor kengarriak.

1.²¹ Heriotzaren ziozko eskualdaketetan ondarezko balio garbia ezartzeko ondorioetarako, oinordetzaren kausagileak utzi zituen zorrak ken daitezke oro har, baldin eta izan badirela frogatzen bada Kode Zibileko 1227. artikuluko baldintzak betetzen dituen agiri publiko nahiz pribaturen bidez edo beste modu batez zuritzen bada. Dena den, kenkaria ezin izango da egin, eskualdaketa horiek kuota partearen oinordekoen edo legatadunen alde eta horien ezkontideen, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotako izatezko bikote lagunen, aurreko edo ondorengo ahaideen edo anai-arreben aldekoak direnean, nahiz eta herentziari uko egin. Administrazioak exiji lezake oinordekoek agiri publikoen berretsi dezatela zorra, hartzekoduna bertan dagoela.

2. Bereziki, kengarriak izango dira Estatu, Gipuzkoako Foru Diputazio, Komunitate Autonomo, beste Foru Diputazio nahiz Korporazio Lokaletako zergak direla eta, edo Aseguru Sozialeko zorreatatik kausagileak zorretan lituzkeen eta oinordekoek, albazeak edo jaraunspen ondasuntzaren administratzaileek ordaintzen dituzten kopuruak, hil ondoren luzatutako likidazioei badagozkie ere.

14. artikulua. Gastu kengarriak.

Heriotzaren ziozko eskurapenetan oinarri zergagarria ezartzeko honako hauek dira kengarriak:

a) Testamentu nahiz abintestatuak auzi izaera hartzen duenean, aipatu testamentu nahiz abintestatuaren legezko ordezkariak oinordeko guztien interesen amankomunerako sortzen diren gastuak, utzitako ondasuntzaren administrazioakoak salbu, beti ere autoen testigantzarekin behar bezala zurituri gelditzen badira.

b) Azken gaisotasuneko, hileta eta lurperatzeko gastuak, justifikatzen diren neurrian. Hileta eta lurperatzekoak herentzia ondasuntzarekin behar bezalako proportzioa gordetzen duten heinean, herriko erabilera eta ohiturei jarraiki.

3. Sekzioa: Arau bereziak irabazizko "inter vivos" transmisioetarako

15. artikulua. Karga kengarriak.

Dohaintzetan eta gainontzeko irabazizko "inter vivos" transmisio erkagarrietan, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio errealetik Foru Arau honetako 12. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kargak kenduko dira.

²¹ 1 apartatu hau izatezko bikoteen zerga erregimenari buruzko abenduaren 15eko 20/2003 FORU ARAUaren 4.artikuluaren 4.apartatuak aldatu du. Foru arau hau 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. Halere, aplikazioa zergadunarentzat onuragarriagoa denean, 2003ko maiatzaren 24tik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO 2003-12-22).



16. artikulua. Zor kengarriak.

Dohain emandako edo bestelako irabazizko "inter vivos" titulu erkagarri baten bidez eskuratutako ondasunen baliotik transmititutako ondasunen beren gainera erortzen diren eskubide errealekin bermatutako zorrak soilik izango dira kengarriak, baldin eta eskuratzailleak bermatutako zorra fedemailez ordaintzeko beharra bere gain hartu badu.

Behar hori fedemailez bereganatuko ez balitz ez da kengarria izango zorraren zenbatekoa, zerga ordaintzeko epearen barruan bere kabuz ordaindu duela fedemailez egiaztatuko balu, zenbateko hari dagokion zerga kuotaren zatia itzul dakion eskuratzailleak duen eskubidearen kalterik gabe. Erregelamenduki itzulketa gauzatzeko modua arautuko da.

4. Sekzioa: Balore frogaketa

17. artikulua. Arau Orokorrak.²²

1. Administrazioak Zergen Foru Arau Orokorren 56. artikuluan ezarritako egiaztapen bideen bitartez froga dezake ondasun eta eskubide eskualdatuen balioa.

2. Interesatuek, foru arau honen 31. artikulua araberako aurkeztera behartuta dauden aitortuenean, adierazi behar dute zer balio erreal ematen dioten zergapetutako ondarearen gehikuntzan sartzen den ondasun eta eskubide bakoitzari.

Egiaztatutako balioa lehenetsiko da interesatuek aitortutakoaren aldean, baita azken hori handiagoa denean ere.

3.²³ (edukirik gabe)

4.²⁴ Egiaztapenetik ateratako balioa aitortutakoa baino handiagoa denean, likidatu beharreko kuotari ez zaio zehapenik jarriko, baldin eta aitortpena egitean subjektu pasiboak ondarearen gaineko zergan ezarritako balorazio erregelak bete baditu.

²² Artíkulu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAREN 2. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).

²³ Apartatu hau edukirik gabe utzi du abenduaren 23ko 6/2015 FORU ARAUAREN hirugarren amaierako xedapenaren 1. apartatuak. Foru arau hori Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren erreformari buruzkoa da. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2015-12-24ko GAO).

²⁴ Apartatu hau ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUAREN azken xedapenetako hirugarreneko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Ondarearen gaineko Zerga onartu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2018/06/19ko GAO).



5. Balioak egiaztatzean lortutako emaitza zuzentze aldera, interesatuek peritu tasazio kontrajarria sustatu dezakete, administratiboki egiaztatutako balioetan oinarrituta egindako likidazioaren kontra edo, inter vivos egindako kostu bidezko eskualdaketen kasuan eta eskualdatzaileei dagokienez, behar bezala jakinarazitako balio egiaztapeneko egintzaren kontra egindako lehen erreklamazioaren epearen barruan aurkeztekoa den eskaera baten bidez.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea errekurtsio edo erreklamazioari buruzko erabakia administrazio bidean irmoa den datatik aurrera kontatuko da, interesatuaren iritziz jakinarazpenean nahiko argi jasota ez daudenean aitortutako balioak aldatzeko kontuan hartutako datuak eta arrazoiak eta, gainera, aipatu datuak jaso ez izana salatzen duenean berraztertze errekurtsioan edo erreklamazio ekonomiko-administratiboan, peritu tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidea beretzat gordeta.

6. Aurreko 5. apartatuan jasotakoaren arabera peritu tasazio kontrajarriaren eskaera aurkezteak edo hura sustatzeko eskubidea gordetzeak berarekin ekarriko du egindako likidazioen ordainketa eta horien aurkako erreklamazio epeak etetea.

18. artikulua. Foru Diputazioak eskuratzeko duen eskubidea.

1.²⁵ Foru Diputazioak eskualdatu den edozein ondasun edo eskubide beretzat eskuratzeko eskubidea izango du haien balio frogatuak aitortutakoaren balioa 100eko 100ean gainditzen duenean. Eskubide hau zerga likidazioaren irimotasun-datatik hurrengo sei hilabeteen barruan soilik erabiltzerik izango da.

2. Foru Diputazioak eskuratzeko eskubidea gauzatzen baldin bada, eta delako ondasun edo eskubideaz jabetu aurretik, aurreko artikuluko 2. zenbakiak aipatzen duen aitorpenean balio erreal gisa hari esleitutako zenbatekoa ordainduko zaio interesatuari.

3. Baldin eta interesatuak ondasun edo eskubideak eskuratzegatik Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergagatik kopuruaren bat sartu izan balu eta haien gainean Foru Diputazioak artikuluko honetan aitortutako eskubidea erabili izan balu, interesatuari ordaindutako kopuruaren gaineko soberakinari dagokion zerga zatia itzuliko zaio, erregelamenduki ezarritako moduan.

V. Kapitulumua: Oinarri likidagarria

²⁵ Artikulu honen 1. zenbakia maiatzaren 19ko 41/1992 Foru Dekretuak aldatu du 1992ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia egokitzen du abenduaren 16ko 29/1991 Legeak, zenbait zerga kontzeptu Europako Elkartean arautegi eta direktibetara egokitzekoak, esandakora Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokienez.



19. artikulua. Oinarri likidagarria.²⁶

1. Etxebizitzaren jabari osoa, gozamina, jabetza soila, azalera eskubidea edo erabiltze eta biztante eskubidea kosturik gabe eskuratzen bada inter vivos edo mortis causa dela medio, eta eskualdaketa egin aurreko bi urteetan eskuratzaila bertan bizi izan bada eskualdatzailearekin batera, eskurapen horrek 100eko 95eko murriztapena izango du zerga oinarrian, 220.000 euroko mugarekin.

Bizikidetzaren beharkizuna frogatzeko, errolda agiria eta epe horretan elkarrekin etenik gabe bizi izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira, betiere zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide erabiltzea eragotzi gabe.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, mortis causa eskurapenetan oinarri likidagarria kalkulatu da zerga oinarriari 20. artikuluko 1. zenbakian jasotako ahaidetasun maila dagokien murriztapena aplikatuta, honako hau, zehazki:

a) 400.000 euro, I. taldekoentzat.

b) 16.150 euro, II. taldekoentzat.

c) 8.075 euro, III. taldekoentzat.

Eskurapenak minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa duten edo mendetasun egoeran dauden pertsonen egindakoak direnean, kausatzailearekiko ahaidetasun mailaren arabera zilegi izan daitekeenaz gain 80.000 euroko murriztapena aplikatuko da.

Ondorio horietarako, ulertuko da pertsona minusbaliatuek edo mendetasun egoeran daudenean murriztapenerako eskubidea dutela, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen dutenean zerga horren legeriaren arabera.

²⁷3. Hildakoaren ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunak, aurreko ahaideek edo adoptatzaileek, ondorengo ahaideek edo adoptatuek, edo hirugarren gradurainoko zeharkako ahaideek mortis causa eskuratzen badituzte banakako enpresa bat, negozio profesional bat, entitateetako partaidetzak edo haien gaineko gozamen eskubideak, eta eskurapen horiei aplikagarri bazaie Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean araututako salbuespena, eskurapenak 100eko 95eko murriztapena izango du zerga oinarrian, betiere eskuratutakoari 5 urtez eusten

²⁶ Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

²⁷ Apartatu hau ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUAREN azken xedapenetako hirugarreneko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Ondarearen gaineko Zerga onartu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2018/06/19ko GAO).



bazaio, kausatzailea hiltzen denetik aurrera, salbu eta eskuratzailerak epe horretan hiltzen denean edo enpresa edo entitatea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen denean.

Eskurapenak eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen ondorioz egiten badira kausatzailea oraindik bizirik dela, aurreko paragrafoan aipatu den 5 urteko epea eskualdaketa gertatzen den unetik aurrera zenbatuko da.

Testamentu-ahalordeaz baliatuta egiten diren eskurapenetan, aurreko lehen paragrafoan aipatu den 5 urteko epea ahalordea baliatzen den unetik aurrera zenbatuko da.

Aurreko paragrafoetan aipatutako entitateetako partaidetzak eta horien gaineko gozamen eskubideak eskuratzen direnean, murriztapena kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer proportzio duten elkarren artean jarduera ekonomikoari lotutako aktiboen balioak –jardueratik eratorritako zorren zenbatekoarekin gutxituta– eta entitatearen ondare garbiaren balioak; hala behar denean, erregela horiek berak aplikatuko dira partaidetutako entitateen partaidetzen balorazioan ere, haien entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazteko.

Apartatu honetako lehen hiru paragrafoetan aipatutako eskurapenari eusteko baldintza ez bada betetzen, ordaindu beharko dira murriztapenagatik zergan ordaindu ez den zatia gehi berandutze-interesak.

²⁸Apartatu honetan jasotako murriztapena aplikatzeko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 6. artikuluko bat apartatutik sei bitartean ezarritako beharkizunak oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena gertatzen den unean bete beharko dira. Zehazki, 6. artikuluan bi apartatuko d) letran aipatzen den baldintza bete beharko da kausatzailearen edo, hala badagokio, bi apartatu horretako c) letran aipatutako ahaidetasun taldeko pertsonaren edo pertsonen errenta zergaren autolikidazioan, eta, betiere, zergaldi hauetako bat autolikidatzen denean:

- a) Oro har, kausatzailearen heriotza gertatu den zergaldia.
- b) Eskualdaketa zergaldia, baldin eta eskurapenak kausatzailea oraindik bizirik dela egiten badira, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen ondorioz.

²⁹**4.** Ezkontideak edo izatezko bikote-lagunak (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratuak), aurreko ahaideek edo adoptatzaileek, edo ondorengo ahaideek edo adoptatuek inter vivos eskuratzen badute banakako enpresa bat, negozio

²⁸ Paragrafo hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 4. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

²⁹ Apartatu hau ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUAREN azken xedapenetako hirugarreneko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Ondarearen gaineko Zerga onartu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2018/06/19ko GAO).



profesional bat edo entitate-partaidetza bat, eta eskurapenari aplikagarri bazaio Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean araututako salbuespena, orduan eskurapen horrek 100eko 95eko murriztapena izango du zergaren zerga oinarrian, betiere baldintza hauek betetzen badira:

- a) Dohaintza-emaileak hirurogei urte edo gehiago eduki behar ditu, edo ezintasun iraunkorreko egoeran egon, dela absolutua dela baliaezintasun handikoa.
- b) Dohaintza-emailea zuzendaritza lanak egiten ari bada, eskualdaketaren unetik beretik lan horiek egiteari utzi behar dio eta ez du ordainsaririk jasoko lan horietan jarduteagatik.

Ondorio horietarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kide izate hutsa ez da hartuko zuzendaritza lantzat.

- c) Dohaintza-hartzaileari dagokionez, dohaintzaren eskritura publikoa egin ondorengo 5 urteetan bere esku mantendu behar du eskuratutakoa, eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean araututako salbuespenerako eskubidea izango du, non eta epe horretan ez den hiltzen edo enpresa edo entitatea ez den likidatzen konkurtso-prozedura baten ondorioz. Halaber, dohaintza-hartzaileak ezin izango du egin erabilpen egintzarik edo sozietate eragiketarik, zuzenean edo zeharka eskurapenaren balioa nabarmen murriztu dezaketenean.

Entitateetako partaidetzen eskurapenetan, murriztapena kalkulatu da kontuan hartuta zer proportzio gordetzen duten elkarren artean jarduera ekonomikoari atxikitako aktiboen balioak –jardueratik eratorritako zorren zenbatekoarekin gutxitua– eta entitatearen ondare garbiaren balioak; hala behar denean, erregela horiek berak aplikatuko dira partaidetutako entitateen partaidetzen balorazioan ere, haien entitate edukizaillearen partaidetzen balioa zehazteko.

Apartatu honetan aipatzen diren baldintzak betetzen ez badira, ordaindu beharko dira murriztapenagatik zergan ordaindu ez den zatia gehi bidezkoak diren berandutze-interesak.

Apartatu honetan jasotako murriztapena aplikatzeko, dohaintza-emaileak oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortza-pena gertatzen den unean bete behar ditu Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean aurreikusten dituen beharkizunak. Dena den, 6 artikulua bigarren apartatuko d) letrako baldintza bete beharko da dohaintza-emailearen edo, hala badagokio, bigarren apartatu horretako c) letran aipatutako ahaidetasun taldeko pertsonaren edo pertsonen errenta zergaren autolikidazioan, eta autolikidazio horrek eskualdaketa egin aurreko lehen zergaldikoa izan beharko du beti.

5. Bizitza aseguruak direla-eta jasotako kopuruaren eskurapenetan, oinarri likidagarria lortzeko honako murriztapen hauek aplikatuko dira zerga oinarrian:



A) Aseguruaren kontratatzaileak edo hartzaileak eta haren onuradunak elkarren artean duten ahaidetasunaren arabera:

a) 400.000 euro, I. taldekoentzat.

b) 16.150 euroko murriztapena, bai eta gainerako kopuruaren 100eko 25ekoa ere, II. taldeko ahaidetasun maila denean.

c) 8.075 euroko murriztapena, ahaidetasun maila III. taldekoa denean.

Aseguru kolektiboetan edo enpresek beren enplegatuen alde kontratatutako aseguruetan, aurreko murriztapenak aplikatuko dira aseguruaren eta onuradunaren arteko ahaidetasuna kontuan hartuta.

Murriztapen horretaz gozatzeko, polizan aurreikusitako ezbeharra gertatu baino gutxienez bi urte lehenago hitzartua behar du izan aseguruak, hura modu kolektiboan hitzartu ez bada behintzat.

B) Murriztapena 100eko 100ekoa izango da jasotako kopuruak bizitza aseguruaren ondorioz jasotzen direnean dela terrorismo ekintzengatik dela nazioarteko bake misioetan edo misio humanitarioetan egindako zerbitzu publikoengatik.

VI. Kapituluak: Zerga zorra

20. artikulua. Likidazio erregelak.³⁰

1. Heriotza dela-eta nahiz dohaintzaz edo titulu parekagarri batez egindako eskurapenek kausatzaile edo dohaintza emailearen eta kausadun edo dohaintza hartzailearen artean dagoen ahaidetasun edo harreman mailaren arabera tributatu dute, talde hauen arabera:

a) I. taldea: Ondorengo ahaideek edo adoptatuek, ezkontideak edo, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotakoaren arabera osatutako izatezko bikoteak direnean, izatezko bikote kideak, aurreko ahaideek edo adoptatzaileek.

b) II. taldea: Odolkidetasun bidezko bigarren eta hirugarren mailako zeharkako ahaideek eta ezkontza bidezko aurreko eta ondorengo ahaide direnek, bai eta maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera izatezko bikote bat osatzearen ondorioz halakotzat hartzen direnek, egiten dituzten eskurapenak.

c) III. taldea: Laugarren mailako zeharkako ahaideek, ezkontza bidezko bigarren eta hirugarren mailako zeharkako ahaide direnek, bai eta maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera izatezko bikote osatzearen ondorioz halakotzat hartzen direnek, maila urrunagokoek eta arrotzek egiten dituzten eskurapenak.

³⁰ Artikulu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAREN 2. artikuluko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).



Kausadunak ezezagunak badira, arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifaren arabera egingo da likidazioa, behin haiek nortzuk diren ezagutuz gero bidezkoa den itzulketa eragotzi gabe.

2. Bizitza aseguruengatik jasotako diru kopuruak heriotza dela-eta egindako eskualdaketetarako indarrean dagoen tarifa bera aplikatuz likidatuko dira, herentzia osatzen duten ondasun eta eskubideak bereizita.

Bizitza aseguruetan kontratatzaile edo aseguru hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasun mailaren arabera ordainduko da zerga. Aseguru kolektiboetan edo enpresek beren enplegatuen alde kontratatutako aseguruetan, ordea, aseguruaren eta onuradunaren arteko ahaidetasun mailari begiratuko zaio.

³¹**3.** Uko egitearen onuradunak eskubide eta ondasunak eskuratzen baditu hirugarren baten herentziako oinordetza-eskubideak xedatzearen ondorioz, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. apartatuko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat, eskurapen horrek hirugarren hori hiltzen denean tributatu du, kausatzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera, betiere, uko-egileari emandako eta entregaren unean baloratutako eskubide eta ondasunen balioa kenduta, hala badagokio

³²**4.** Ondasun eta eskubideak eskuratzen badira Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 106. artikuluan araututako eskubide xedapenen ondorioz, eskurapen horrek tributatu du izendatzailearen eta izendatutakoaren ondorengoaren arteko ahaidetasun mailaren arabera.

21. artikulua. Kuota osoa.³³

Zergaren kuota osoa lortzeko, aurreko artikuluan jasotakoari jarraituz kalkulaturako oinarri likidagarriari honako tasa edo tarifa hauek aplikatuko zaizkio, foru arau honek 20. artikulua 1. zenbakian jasotako ahaidetasun mailen taldeen arabera:

a) I. taldea: %1,5eko zerga tasa aplikatuko da.

b)³⁴ II. eta III. taldeei, tarifa hauek aplikatuko zaizkie:

³¹ Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko bost apartatuak gehitu du. Aipaturako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

³² Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko bost apartatuak gehitu du. Aipaturako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

³³ Artikulu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAREN 2. artikuluko zortzi apartatuak aldatu du. Aipaturako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).



II. TARIFA

II. TALDEA

Oinarri likidagarria, gehienez	Kuota osoa	Oinarriaren gainerakoa, gehienez	Tasa marginala
Euroak	Euroak	Euroak	%
0	0,00	8.200	5,70
8.200	467,40	16.390	7,98
24.590	1.775,32	16.390	10,26
40.980	3.456,94	40.990	12,54
81.970	8.597,08	81.970	15,58
163.940	21.368,01	245.990	19,38
409.930	69.040,87	409.740	23,18
819.670	164.018,60	1.229.460	28,50
2.049.130	514.414,70	Soberakina	34,58

III. TARIFA

III. TALDEA

Oinarri likidagarria, gehienez	Kuota osoa	Oinarriaren gainerakoa, gehienez	Tasa marginala
Euroak	Euroak	Euroak	%
0	0,00	8.200	7,60
8.200	623,20	16.390	10,64
24.590	2.367,10	16.390	13,68
40.980	4.609,25	40.990	16,72
81.970	11.462,78	81.970	20,52
163.940	28.283,02	245.990	25,08
409.930	89.977,31	409.740	29,64

³⁴ Letra hau amaierako bigarren xedapenaren aldatua du 3/2017 FORU ARAUAK, abenduaren 26koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2018. urterako Aurrekontu Orokorrek onartzen dituenak. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2017-12-27), 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.



819.670	211.424,25	1.229.460	35,72
2.049.130	650.587,36	Soberakina	42,56

22. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitzagatiko kenketa.

Zerga honetako kuota beteari hurrengo bi kopuruetako txikiena kenduko zaio:

a) Zerga honen mendeko ondare gehikuntzari erasaten dion antzeko kargagatik atzerrian ordaindutakoaren zenbateko efektiboa.

b) Zerga honen batz besteko tipoa Espainiatik kanpo kokatutako ondasunei edo erabil daitezkeen eskubideei dagokien ondare gehikuntzari aplikatuz ateratzen den emaitza, antzeko zerga batengatik atzerrian kargapera meneratuak izan balira.

VII. Kapituluak: Sortzapena eta preskripzioa

23. artikulua. Sortzapena.³⁵

1. Mortis causa eskurapenetan eta bizitza-aseguruetan, zerga sortuko da kausatzailea edo aseguraturia hiltzen den egunean edo, bestela, absentearen heriotza-adierazpenak Kode Zibilaren 196. artikuluan aipatzen den irmotasuna hartzen duenean.

Testamentu-ahalorde bidez gauzatzen diren herentzietan, zerga sortuko da ahalordea modu ezeztazenez erabiltzen denean edo ahalordea azkentzeko arrazoietako bat gertatzen denean.

Oinordetza-itunek unean bertan dutenean eraginkortasuna edo herentziari uko egiteko oinordetza-titulua direnean –foru arau honen 3.1.a) artikuluan aipatuak–, izendatzailea bizirik dagoela gertatuko da zergaren sortzapena, eskualdaketa egiten den unean.

2. Inter vivos egiten diren doako eskualdaketatik, kontratua gertatzen edo egiten den egunean sortuko da zerga.

Ondasun eta eskubideen eskurapenak inter vivos egindako doako negozio juridikotzat hartzen badira foru arau honen 3.1 artikuluko a) letran ezarritako salbuespenekin eta 3.1.b) artikuluko f) letran xedatutakoarekin bat, eskurapen horietan zerga sortuko da eskualdaketa egiten den egunean.

3. Izendatutakoaren oinordetza-eskubideak izendatzailea bizirik dagoela xedatzen badira dohainik, inter vivos edo mortis causa egintzen bidez, Euskal

³⁵ Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).



Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, zerga ez da sortuko izendatzailearen heriotza egunera arte.

4. Ondasunen eskurapen batek etenda badu eraginkortasuna tartean baldintza bat, epemuga bat, fideikomiso bat edo beste edozein muga ezarri delako, mugapen horiek desagertzen diren egunean gauzatutzat joko da eskurapena.

24. artikulua. Zorra zehazteko eskubidea iraungitzea.³⁶

1. Lau urtetara iraungiko da Administrazioak zerga zorra zehazteko duen eskubidea, likidazioaren eta zerga zigorrak ezartzeko egintzaren bitartez.

2.³⁷ Aitorpena aurkezteko ezarrita dagoen epea amaitzen den egunean hasiko da kontatzen epe hori.

3. Atzerriko funtzionarioek baimendutako eskriturak direnean, iraungitze epea Espainiako edozein administraziotan aurkezten den egunetik aurrera zenbatuko da, salbu Espainiak izenpetutako nazioarteko itun, hitzarmen edo akordio batean beste egun bat finkatzen bada epe hori hasteko.

VIII. Kapituluak: Arau bereziak

25. artikulua. Gozamena eta beste instituzio batzuk.³⁸

1. Gozamen eskubidearen eraketa eta iraungipena eta ordezkpenak, erreserbak eta fideikomisoak zergapetzean, hurrengo letretan jasotzen diren arauak aplikatuko dira:

a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balio osoarekiko proportzioa izango da, hots, 100eko 5 urtebete bakoitzeko, 100eko 70 gainditu gabe.

Biziarreko gozamenetan, haien balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70 izango da gozamendunak hogeitun urte baino gutxiago dituenetan. Alabaina, adina aurrera joan ahala, balioa 100eko 1eko proportzioan gutxituko da urte bakoitzeko, eta balio osoaren 100eko 10 izango da gutxieneko muga.

³⁶ 24.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAREN 118.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

³⁷ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAREN 4. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

³⁸ Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).



Jabetza soileko eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko diferentzia izango da. Aldi baterakoak ere badiren biziarteko gozamenetan, berriz, jabetza soila baloratuko da aurreko erregeletatik baliorik txikiena esleitzen diona aplikatuta.

Jabetza soila eskuratzen denean, likidazioa egingo da hari dagokion balioa kontuan hartuta, betiere, zergadunak aplikatu ditzakeen murriztapen guztien zenbatekoarekin gutxituta, hala badagokio.

b) Erabiltzeko eta biztantzeko eskubide errealeen balioa kalkulatu da eskubideok eratzen dituzten ondasunen balioaren 100eko 75ari aldi baterako edo biziarteko gozamenak (kasuan kasukoak) baloratzeko erregelak aplikatuta.

c) Gozamena iraungitzen denean, eraketa-tituluaren arabera ordainaraziko da zerga.

d) Eskuratzailerak ondasunak baliatzeko ahalmena duen guztietan, jabari osoari dagokion zerga likidatu da, bidezkoa izan daitekeen itzulketa eragotzi gabe.

e) Ordezpen arruntetan, ulertuko da ordezkioak kausatzailearen jaraunse dela, eta ordezen pupilar eta kuasipupilarretan ordeztutakoaren jaraunse izango da.

2. Kausatzailearen xedapenengatik edo oinordetzaren arau zibilen aplikazioagatik, pertsona bati esleitzen bazaio herentzia bateko ondasunak osorik edo partez gozatzeko eskubidea, dela aldi baterako dela bizi artean, zerga ondorioetarako ulertuko da erabilera edo gozamen eskubide bat dagoela, eta eskubide hori, izena zeinahi duela ere, baloratuko da aldi baterako edo biziarteko gozamen edo erabilera-eskubideetarako ezarritako arauen arabera.

Aurreko apartatuko d) letran xedatutakoa gorabehera, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean araututako testamentu-ahalordeetatik ondorioztatzen diren gozamen eskubideak foru arau honetako 25 bis artikuluan berariaz ezartzen diren arauari jarraituz arautuko dira.

25. bis artikulua. Gozamena testamentu-ahalordearen menpeko herentzietan.³⁹⁴⁰

1. Testamentu-ahalordean pertsona jakin bati eman bazaio herentziako ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horrengatik likidazio bakarra egingo da gozamedunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera eta biziarteko gozamenen arauak aplikatuta.

³⁹ Artikulu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 1. artikulua hiru apartatuak gehitu du. Foru arauaren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoarena da. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016/11/18ko GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁴⁰ Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko zortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).



2. Testamentu-ahalordean gozamina ahalorde hori erabiltzen denean azkentzen bada, gozamen horregatik bi likidazio egingo dira gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehen likidazio bat, kausatzailea hiltzen denean, biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

Alabaina, testamentu-ahalordea erabiltzeko epea zehaztuta badago, lehen likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauak aplikatuta egingo da, ahalordea erabiltzeko ezarrita dagoen gehieneko epeagatik.

b) Beste likidazio berri bat, testamentu-ahalordea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboragatik. Aurreko likidazioagatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

Letra honetan aipatzen den autolikidazioa aurkeztuko da testamentu-ahalordea baliatzeagatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik oinordeko gertatzen diren autolikidazioa aurkeztearekin batera, kausatzailea hiltzean ondasunek zuten balioa kontuan hartuta.

3. Artikulu honetan aipatutako gozamenak kalkulatzeko, foru arau honen 25.1 artikuluan biziarteko gozamenari eta aldi baterako gozamenari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

25. ter artikulua. Testamentu-ahalordea erabiltzea.⁴¹

⁴²1. Ahalordea erabiltzean komisarioak, ezkontide alargunak edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunak irabazpidezko sozietatearen ondasun komun bat adjudikatzen badio komisarioak eta kausatzaileak komunean duten ondorengo bati, herentzia banatu eta likidatu gabe, ezkontide alargunaren edo izatezko bikote-lagunaren zatia dohaintza moduan likidatuko da, eta kausatzaileari dagokion zatia oinordetza moduan.

⁴³2. Testamentu-ahalordearen menpeko oinordetzetan, likidazio hauek egin beharko dira, hala behar denean: bat, kausatzailea hil eta berehala, ahalordeak ukitzen ez duen herentziaren zenbatekoagatik, eta, beste bat, edo beste batzuk, ahalordea modu ezeztazinean erabili edo hura azkentzeko gainerako

⁴¹ Artikulu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 1. artikulua lau apartatuak gehitu du. Foru arauaren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzearena da. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016/11/18ko GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁴² Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

⁴³ Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).



arrazoietako bat gertatu ondoren, ahalordeak ukitzen duen herentziaren zenbatekoagatik.

3. Testamentu-ahalordea erabiltzen den guztietan, oinordeko berberari dagozkion eskurapen guztiak metatu egingo dira, bai zerga likidatzeko eta bai foru arau honetan zerga oinarrirako aurreikusten diren murriztapenak aplikatzeko. Gainera, metatutako likidazioengatik lehendik ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira metaketaren ondorioz egiten den likidaziotik.

25. quater artikulua. Herentzia bidezko eskurapenen metaketa.⁴⁴

1. Kausadun batek kausatzaile jakin batengandik oinordetza beraren ondorioz lortzen dituen ondare gehikuntza guztiak herentzia bidezko eskurapen bakartzat joko dira, nahiz eta oinordetza-titulu baten baino gehiagoren bidez lortuak izan.

⁴⁵**2.** Hori dela-eta, jasotzen diren ondasun eta eskubide eskurapen guztiak metatu egingo dira, hau da, bai oinordetza-itunen ondorio direnak, testamentu-ahalordea osorik edo partez erabiltzeagatik edo hura azkentzeko beste arrazoiengatik gertatutakoak, eta bai testamentugileak berak testamentuan zuzenean xedatutakoak, edo haren faltan, legean ezarritakoak.

3. Artikulu honetako aurreko bi apartatuetan aipatu diren ondare gehikuntza guztiak herentzia bidezko eskurapen bakartzat hartuko dira zerga likidatzeko. Hortaz, zerga kuota kalkulatzeko garaian, zerga oinarri guztiak batu behar dira, eta foru arau honetan araututako zerga oinarriaren murriztapenen artetik aplikatu beharrekoak behin bakarrik aplikatuko dira.

Gainera, metatutako likidazioengatik lehendik ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira metaketaren ondorioz egiten den likidaziotik, baina ez da inoiz kuotarik itzuliko.

25. quinquies artikulua. Itzulketetan likidatzeko erregelak.⁴⁶

⁴⁷**1.** Izendatzaileari itzultzen bazaizkio mantenuaren kargapean egindako oinordetza-itunen bidez eskualdatutako ondasunak –Euskal Zuzenbide Zibilari

⁴⁴ Artikulu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 1. artikulua bost apartatuak gehitu du. Foru arauaren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoarena da. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016/11/18ko GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁴⁵ Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hamar apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

⁴⁶ Artikulu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 1. artikulua sei apartatuak gehitu du. Foru arauaren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoarena da. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016/11/18ko GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 107.3 artikuluan aipatzen den oinordetza-itun mota hori-, autolikidazio bat egingo da aldi baterako gozamenei buruzko arauen arabera, eta autolikidazio horretan soberan ordaindutako zenbateko bat ateratzen bada itzulitako ondasunen eskualdaketagatik hasiera batean egindako autolikidazioaren aldean, soberakin hori itzuli egingo zaio zergadunari.

2. Itzulitako ondasunak ez dira kausatzailearen herentzian metatuko –metaketa hori foru arau honen aurreko artikuluan aipatzen da–, baldin eta ondasunoi artikulua honen aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatu bazaie.

26. artikulua. Zatiketa eta adjudikazio soberakinak.

1.⁴⁸ Mortis causa oinordetzetan, interesdunek egiten dituzten banaketak eta adjudikazioak edozein direla ere, zergaren ondorioetarako ulertuko da oinordetza horiek proportzionaltasun osoz eta oinordetzaren arauen arabera egin direla, kontuan hartu gabe ondasun horiek lurraldearengatik edo beste edozein arrazoiarengatik zergaren ordainketari loturik dauden ez. Hortaz, balioak egiaztatzean gertatzen diren gehikuntzak eskuratzaile edo oinordekoen artean hainbanatuko dira.

2. Egiaztatzean balio gehikuntza gertatzen deneko ondasunak eta ez atxekipena aplikatu behar zaizkienak, testamentugileak jakin bati espreski atxikituko balio edo herentzia ez den kontzeptuan adjudikatuko balira, gehikuntzak nahiz murrizketak aipatu ondasunak eskuratzen dituenari bakarrik egokituko zaizkio.

3.⁴⁹ Oinordekoek nahiz legatadunek herentzia tituluari dagokionez egindako esleipenetan, aitortutako balioaren arabera desberdintasunak daudenean esleipen soberakinak likidatuko dira, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarritako arauari jarraituta; oinordeko nahiz legatadun bati esleitutakoaren balio frogatua bere tituluaren arabera egokituko zaion balioaren % 50 baino gehiago denean ere esleipen soberakinak likidatuko dira, Salou aitortutako balioak Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren arauak aplikatuz aterako liratekeen berdinak edo handiagoak diren kasuan.

Ez dute esleipen soberakinik ekarriko ezkontide alargunaren, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotako izatezko bikoteko lagunaren edo, bestela, kuota

⁴⁷ Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hamaika apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

⁴⁸ Artikulu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 1. artikulua zuzen aldatu du. Foru arauaren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoarena da. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016/11/18ko GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁴⁹ Apartatu hau ekainaren 11ko 2/2018 FORU ARAUaren azken xedapenetako hirugarreneko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Ondarearen gaineko Zerga onartu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2018/06/19ko GAO).



partearen, ohiko etxebizitzaren edo baserriaren eta haien jabetzen eta lur erantsien oinordeko edo legatudun baten edo batzuen alde egiten diren esleipenek, haiek herentzia osoaren aldean duten balioa handiagoa denean esleipendunaren herentzia-kuota baino.

27. artikulua. Oinordetza arbuizatzea eta uko egitea.⁵⁰

1. Herentzia edo legatuari arbuio edo ukapen soil, arrunt eta doakoa egitean, horren onuradunek arbuizatutako edo uko egindako zatiaren eskurapenarengatik ordainduko dute zerga, uko egin edo arbuiatzen duenari aplikatu beharreko tarifaren arabera, salbu kausatzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasunarengatik karga handiagoko tarifa ezarri behar bada.

⁵¹Apartatu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko foru arau honen 3.1.a) artikuluko g') letrak aipatzen dituen uko egiteko oinordetza-itunetan.

2. Pertsona jakin baten alde oinordetzari uko egiten zaion gainerako kasuetan, uko egiten duenari exigituko zaio zerga, horrez gain arbuizatutako zatia lagatu edo dohaintzan emateagatik likidatu beharko dena eragotzi gabe.

⁵²Hala ere, hirugarren baten herentziari uko egiteko itunak egiten direnean Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. apartatuko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat, uko-egileari ez zaio zerga exijituko, foru arau honen 3.1.b) artikuluko f') letraren arabera egongo baita, hala behar denean, zergapetuta, uko-egitearen onuradunari dagokion tributazioa eragotzi gabe.

3. Herentzia nahiz legatuari dagokion zergaren epea iraungi ondoren egindako arbuio edo ukapena dohaintza gisa ulertuko da zerga ondorioetarako.

28. artikulua. Dohaintza bereziak.

Kostuzko ziozko dohaintzek eta sarizkoek kontzeptu horregatik eta zenbateko osoagatik ordainduko dute zerga. Elkarrekiko prestazioak baleude edo dohain hartzaileari kargaren bat ezarriko balitzaio, kontzeptu berberagatik diferentziagatik bakarrik ordainduko dute zerga.

⁵⁰ Artikulu hau maiatzaren 23ko 3/1997 Foru Arauaren I. artikulua berridatzi du 1997ko ekainaren 3tik aurrerako ondorioekin. Foru arau honek Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Araua aldatzen du.

⁵¹ Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hamabi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

⁵² Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hamahiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).



29. artikulua. Dohaintzak, kosturik gabeko gainerako eskualdaketa parekagarriak, eta mortis causa eskurapenak metatzea.⁵³

1. Dohaintza-emaile berberak dohaintza-hartzaile berberari hiru urteko epearen barruan -dohaintza eta eskualdaketa bakoitzaren egunetik aurrera zenbatuta- egindako dohaintzak eta parekagarriak diren kosturik gabeko gainerako inter vivos eskualdaketak salbuetsita ez badaude eta II. eta III. taldeei badagozkie, eskualdaketa bakartzat hartuko dira zergaren likidazioaren ondorioetarako, eta, beraz, zerga kuota lortzeko, zerga oinarri guztien baturatik abiatuko da kalkulua. Metatutako dohaintzengatik eta kosturik gabeko gainerako eskualdaketa parekagarriengatik lehendik ordaindutako kuotak kengarriak izango dira metaketaren ondorioz egiten den likidaziotik.

2. Aurreko apartatuan aipatutako dohaintzak eta parekagarriak diren kosturik gabeko gainerako eskualdaketak eta dohaintza-emaileak edo kausatzaileak dohaintza-hartzailearen edo oinordekoaren alde edozein titulu bidez egindako oinordetza-eskualdaketak, salbu eta foru arau honetan salbuetsizat jotzen diren ondasunen mortis causa eskurapenak badira, eskurapen bakartzat hartuko dira zerga kuota zehaztearen ondorioetarako, betiere baldin eta horien arteko epea ez bada lau urtekoa baino handiagoa.

Zerga kuota zerga oinarri guztiak batuz lortuko da. Metatutako eskurapenengatik lehendik ordaindutako kuotak ordaindutakotik kendu ahal izango dira, eta, hala behar denean, ordaindutako zenbateko osoa edo haren zati bat itzuliko da.

30. artikulua. Bizitzaren gaineko aseguruengatik jasotako kopuruen metaketa.

Foru Arau honetako 9. artikuluko c) hizkiak aipatzen duen oinarri zergagarria ezartzeko eraginetara, hildakoaren gainean eratutako bizitzaren gaineko aseguru guztiengatik onuradunak jasotako kopuruak metagarriak izango dira.

IX. Kapituluak: Obligazio formalak

31. artikulua. Autolikidazioa.⁵⁴

1.⁵⁵ Subjektu pasiboak behartuta egongo dira foru arau honetan aipatutako zerga egitateak jasotzen dituen autolikidazioa aurkeztera, eta, behar den kasuetan, dagokien zerga zorra ordaintzera.

⁵³ Artíkulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hamalau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

⁵⁴ Artíkulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hamabost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).



Eskurapenak «mortis causa» edo edozein oinordetza tituluren bidez egindakoak badira, heriotza kasuan bizitzaren gaineko aseguru kontratuen onuradunenak barne, aurkezteko epea urtebetekoa izango da, kausatzailea hiltzen den egunetik edo heriotza-adierazpena irmo bihurtzen den egunetik kontatzen hasita, edo, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza-itunetan, berriz, zerga sortzen den egunetik kontatzen hasita.

Epe hori bera aplikatuko zaie usufuktuduna hiltzean gauzatu behar diren usufuktu eskurapenei, jabaria «inter vivos» egintza bidez zatibanatua egon arren.

Gainerako kasuetan, aurkezteko epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da, egintza edo kontratua gertatu edo egin eta biharamunetik kontatzen hasita.

Erregelamenduz arautuko da zein modutan aurkeztu behar den autolikidazioa eta zer beste gai hartu beharko diren kontuan obligazio hori betetzeko.

2. Testamentu-ahalordearen menpeko herentzietan, komisarioak zerga aitorten bat aurkeztu behar du, bertan kausatzailearen heriotza adierazita. Aitorten horretan, foru arau honen 31 bis artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Komisarioak gozamen eskubideagatik foru arau honen 25 bis artikuluan xedatutakoaren arabera autolikidatzeko duen obligazioa eragotzi gabe, apartatu honetan aipatzen diren herentzietan ezingo da autolikidaziorik aurkeztu harik eta testamentu-ahalordea modu ezeztazinean erabiltzen den arte -hala partzialki nola osorik-, edo hura iraungitzeko beste arrazoietakoa bat gertatzen ez den arte.

31. bis artikulua. Komisarioaren betebeharrak testamentu-ahalordearen menpeko herentzietan.⁵⁶⁵⁷

1.⁵⁸ Testamentu-ahalordearen menpeko herentzietan, komisarioak urtebeteko epea izango du, kausatzailea hiltzen den egunetik edo heriotza-adierazpenak Kode Zibilaren 196. artikuluan aipatutako irmotasuna hartzen duenetik aurrera, herentziako ondasunen inbentarioa eta ahalordearen frogagiriak aurkezteko.

⁵⁵ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 4. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

⁵⁶ Artikulu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 1. artikulua bederatzia apartatuak gehitu du. Foru arauaren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoarena da. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016/11/18ko GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁵⁷ Artikulu hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hamasei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

⁵⁸ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 4. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).



Gainera, Zerga Administrazioak, egoki iritziz gero, beste edozein agiri aurkezteko eskatu diezaioke komisarioari.

2. Era berean, hilabeteko epean, testamentu-ahalordea modu ezeztazezinean erabiltzen den egunetik —partzialki edo osorik— edo hura azkentzeko arrazoietako bat gertatzen den egunetik aurrera, komisarioak aurreko alderdi horien berri eman behar dio zerga Administrazioari, eta ahalordea erabili dela egiaztatzen duen dokumentazioa ere aurkeztu behar dio, edo, bestela, ahalordea azkendu dela justifikatu.

Komunikazio horretan berariaz identifikatu behar da testamentu-ahalordea erabiltzeak edo hura azkentzeko beste arrazoietako bat gertatzeak zer ondasun edo eskubideri eragin dien, zein kausaduni adjudikatu zaizkien ondasun eta eskubideok, eta zer egunetan gertatu den herentzia-eskurapen horiei dagokien zergaren sortzapena.

32. artikulua. Agintari, funtzionari eta partikularren eginbeharrak.

1. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergagatik kargatutako ondarearen gehikuntzak daudela agertzen duten epaitza beteraezin edota epai irmoko izaera dutenen hileroko zerrenda bidaliko diote Foru Diputazioari organo judizialek.

2. Erregistro Zibilaren arduradunek hil bakoitzeko lehen hamabostaldiaren barruan aurreko hilean hildakoen zerrenda izenekin eta helbideekin bidaliko diote Foru Diputazioari.

3.⁵⁹ Notarioak beren eginkizunetan aritzean parte hartu duten egintzei buruz Foru Aldundiak eskatzen dizkien datuak ematera behartuta daude, baita hark eskatuta baimentzen dituzten edo beren protokoloan dituzten agirien kopiak hamabost eguneko epean doan luzatzera ere. Dena den, ez dira horretara behartuta egongo 1862ko maiatzaren 28ko Legeak 34. eta 35. artikuluetan aipatutako tresna publikoak direnean eta ezkontza-arazoei edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikoteei buruzko tresna publikoak direnean, salbu hurrenez hurren ezkontzako erregimen ekonomikoari edo ondarezko erregimen ekonomikoari dagozkienak.

Era berean, zerga-gaiak diren ondare gehikuntzak sortaraz litzaketan egintza edo kontratuei buruz aurreko hiruhilabetean baimendutako agiri guztiak edukiko dituen zerrenda edo aurkibidea hiruhilabete bakoitza amaitu ondorengo hilabetearen barruan bidaltzera behartuta egongo dira. Notarioek ezagutu edo sinadurak legitimatzeko aurkeztu zaizkien agiri pribatuen zerrenda, adierazitako edukiarekin batera, epe beraren barruan bidaltzera ere behartuta daude.

⁵⁹ 3. apartatu hau zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 Foru arauaren 6. artikuluko lau zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (2005-11-03ko GAO).



⁶⁰Gainera, notarioek, hil bakoitzeko lehen hamabost egunen barruan, zerrenda bat bidali behar diote Foru Aldundiari, eta bertan adierazi aurreko hilean baimendu dituzten testamentuetatik zeinetan erabili duen herentzia baten komisarioak testamentu-ahalardea modu ezeztazinean; orobat, bertan zehaztu behar dute komisarioa nor izan den eta zein den ahalordea erabiltzea ekarri duen herentziaren kausatzailea. Notarioek baimendutako agiri guztien artetik testamentu-ahalardea erabilia dutenak baino ez dira agertu behar zerrenda horretan, are ahalordea komisarioaren testamentuan erabili denean ere.

⁶¹Orobat, notarioek, aurreko paragrafoan ezarritako epe berean, beraiek baimendutako dokumentu guztien zerrenda igorri behar diote Ogasun eta Finantza Departamentuari, komisarioak Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan aipatutako testamentu-ahalardea erabili gabe duen herentziako ondasunak xedatzeko egintzei dagokienez, azken horiek zerga honen sortzapena ez dakartenean.

4. Organo judizial, finantz bitartekari, Elkarte, Fundazio, Sozietate, funtzionari, partikular eta bestelako edozein erakunde publiko nahiz pribatuak ez dute erabakiko ondasunak titularrez beste pertsoneri entregatzerik aldeztatik zergaren ordainketa edo salbuespena egiaztatzen ez bada, non eta Foru Diputazioak horretarako baimena ematen ez duen.

5. Aseguru Erakundeek ezingo dute pertsona baten bizitzaren gainean hitzartutako likidazioa eta ordainketa burutu, non eta aldeztatik zergaren ordainketa edo salbuespena zurrizten ez den, Foru Diputazioak horretarako baimena eman ezik.

6. Aurreko zenbakietan ezarritako obligazioak ez betetzea Foru Arau honetako 40. artikuluan xedatutakoaren arabera zehatuko da.

Organo jurisdikzionalak direnean Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuaren aginte eskudunak Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari jakinaraziko dizkio egintzak Ministrarritza Fiskalaren bitartez, bidezko eraginetarako.

33. artikulua. Ez aurkeztearen eraginak.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari atxikiriko egintzak edo kontratuak dauzkaten agiriak ez dira onartuko ez eraginik sortuko bulego edo errejistro publikoetan agiria organo eskudunen aurrean likidaziorako aurkeztu dela konstatzen ez bada, hipoteka legerian aurrikusitakoa edo Foru Diputazioaren

⁶⁰ Paragrafo hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUAREN 1. artikulua hama apartatuak gehitu du. Foru arauaren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoarena da. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016/11/18ko GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

⁶¹ Paragrafo hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hamazazpi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).



baimen espresua ezik. Epaitegi eta Auzitegiek organo horiei onartzen dituzten eta likidaziora aurkeztu izanaren oharra agertzen ez direneko agirien kopia baimendua bidaliko diete.

X. Kapituluak: Zergaren gestioa

1. Sekzioa. : Likidazioa

34. artikulua. Arau Orokorrak.

1. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren gestioa eta likidazioa Foru Diputazioaren gain egongo dira eta Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuak dagokion organo eskudunaren bitartez, Bulego Likidatzaile Zentralaren izaera izango duena, eta Zerga Bulegoek eramango dituzte.
2. Foru Diputazioak zergaren likidazio eta ordainketa prozedurak erregula ditzake, baitere, kasua balitz, autolikidazio erregimena, izaera orokorrean edo kasu berezietarako ezar daitekeelarik.

35. artikulua. Konturako likidazio partzialak.

1. Oinordekotzetan interesatuek zergaren likidazio partziala egin dadin, kausagilearen kredituak, debengaturiko eta berak ez jasotako hartzeak kobratzeko, gordailuan leudekeen ondasunak, baloreak, efektuak edo dirua erretiratzeko eta antzeko beste kasuen eraginetarako ez besterako.
2. Erregelamenduki likidazio horiek egiteko modua eta epeak erregulatuko dira eta interesatuek kopuruen kobratetari edo diruaren nahiz gordailaturiko ondasunak erretiratzeari ekin ahal izateko betebeharrak.
3. Likidazio partzialek delako oinordekotzagatik bidezko den behin betiko likidazioaren konturako sarreren izaera izango dute.

2. Sekzioa. : Zergaren ordainketa

36. artikulua. Zerga ordaintzea.⁶²

1. Foru Aldundiak Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan egindako likidazioak 2006ko abuztuaren 2ko 38/06 FORU DEKRETUAK, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduari buruzkoak, jasotako epeetan ordainduko dira. Nolanahi ere, autolikidazio kasuetan berariazko arauak erabiliko dira.
2. Lurralde historikoarentzako interes bereziko kasuetan, perituaren txostena eta egokitza jotako beste haiena aurrez aztertuta, Foru Aldundiak onar dezake zerga

⁶² Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 2. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Foru arau horrek jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).



zorra historia edo arte garrantziko lanak edo gauzak entregatuz edo beste ondasun eta eskubide batzuk lagaz ordaintzea, eta horren berri Batzar Nagusiei emango die.

3. Sekzioa: *Ordainketaren atzerapen eta zatikapena.*

37. artikulua. Arau Orokorra.

Sekzio honetako hurrengo artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe, Oinordetza eta Dohaintzei buruzko zergan ordainketen atzerapen eta zatikapenari buruz Bilketa Araudian ezarritako arauak izango dira aplikagarri.

38. artikulua. Gerorapena eta zatikapena.⁶³

1.⁶⁴ Organo eskudunek heriotzagatik aurkeztutako autolikidazioen kuoten ordainketa urtebetera arte geroratzea erabaki dezakete, betiere likidatutako kuotak ordaintzeko eskudiruzko inbentariaturik edota diru bilakatzen erraza den ondasun nahikorik ez badago eta erregelamenduzko ordainketa epea amaitu baino lehen eskatzen bada. Gerorapena onartzeak berarekin berandutze interesa ordaintzeko obligazioa ekarriko du.

2. Kasu eta baldintza berberetan, ordainketa gehienez ere bost urtekotan zatikatzea erabaki ahal izango dute, betiere ordainketa erregelamenduz erabakitzen den moduan bermatzen bada.

3. Era berean, ordainketa oinordetza baten kausagileak ezagutu arte geroratzea erabaki ahal izango dute, aurreko zenbakietan aipatutako baldintza berberetan.

4. Bizitza aseguruetan kausatzailea aldi berean aseguru kolektiboko kontratatzaile edo aseguraturia denean eta haren zenbatekoa errenta moduan jasotzen denean, onuradunaren eskariz zergaren ordainketa zatikatuko da, betiere autolikidazioaren aurkezpen epea amaitu aurretik aurkeztuz gero, pentsioa jasotzen den urte kopuruan, errenta aldi baterakoa bada, edo gehienez hamabost urtetan, biziarteko errenta bada, erreskate eskubidea erabiltzen ez den bitartean.

Gerorapena lortzeko, ez da beharrezkoa izango inolako kauzio motarik eratzea, eta ez da inolako interes tasarik sortuko.

Pentsioa iraungi ondoren, egin gabeko ordainketa zatikatuak ez dira exijituko. Dena den, erreskate eskubidea erabiliz gero, exijigarriak izango dira.

⁶³ Artíkulua hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUaren 2. artikuluko hamar apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).

⁶⁴ Apartatu hau 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUaren 3. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO).



Erregelamendu bidez, apartatu honetan xedatutakoa gauzatzeko prozedura zehaztuko da.

39. artikulua. Gerorapen eta zatikapen kasu bereziak.⁶⁵

1. Industria, merkataritza, artisautza, nekazaritza edo lanbide jarduera batean diharduen enpresa indibidual baten herentzia, legatu edo dohaintza bidezko eskualdaketa ondoz aurkeztutako autolikidazioen kuoten ordainketa geroratu ahal izango da, autolikidazioa aurkezteko epea amaitu aurretik subjektu pasiboak egindako eskariz, ordainketarako epea amaitu ondorengo bost urteetan, betiere kauzio nahikoa eratu eta gerorapen aldian berandutza interesak ordaintzera behartuta egonik.

2. Bost urteko epea amaituta, baldintza eta beharkizun berberak betez gero, ordainketa sei hilabeteko zazpi epetan zatikatu ahal izango da, zatikapen aldian diruaren legezko interesa ordainduta.

XI. Kapitulua: Arauhaustek eta zehapenak

40. artikulua. Zehapen araubidea.⁶⁶

1. Foru arau honetan araututako zergaren arau-haustek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak IV. tituluaren xedatutakoaren arabera zehatuko dira.

2. Ondasun edo eskubideen eskurapen salbuetsiengatik egiten diren autolikidazioak edo foru arau honetako 19. artikuluko murriztapenak aplikatuta egiten direnak epez kanpo aurkezten badira, eta haien zenbatekoa zerga oinarriaren berdina edo handiagoa bada, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbiaren 100eko 0,1eko diruzko isun proportzionala ezarriko da; isuna, zergadun bakoitzeko, 600 eurokoa izango da gutxienez, eta 9.000 eurokoa gehienez.

3. Testamentu-ahalardearen bidezko herentzien komisarioari foru arau honetako 31. bis artikuluan ezarritako betebeharrak berariaz araututako epean ez betetzea zerga alorreko arau-haustetzat joko da, eta honako erregela hauen arabera zehatuko da:

a) Komisarioak ez badu aurkezten herentziako ondasunen inbentarioa edo inbentarioan izandako aldaketen dokumentazioa —aldaketa horrek zergaren

⁶⁵ Artikulu hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAREN 2. artikuluko hamaika apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gainera Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).

⁶⁶ Artikulu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUAREN 1. artikulua hamaika apartatuak aldatu du. Foru arauaren xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoarena da. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016/11/18ko GAO), eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.



sortzapena ekarri gabe—, edo komisarioak duen ahalordearen frogageria, 600 euroko diruzko isun finkoa ezarriko da.

b) Salbuetsitako eskurapenetan, edo foru arau honetako 19. artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatutako murriztapenak zerga oinarriaren parekoak edo handiagoak dituzten eskurapenetan, ez bada jakinarazten testamentu-ahalordea erabili dela edo hura azkentzeko beste arrazoietako bat gertatu dela, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbiaren 100eko 0,1eko diruzko isun proportzionala ezarriko da; isuna, zergadun bakoitzeko, 600 eurokoa izango da gutxienez, eta 9.000 eurokoa gehienez.

⁶⁷4. *Indargabetua.*

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Parekatzeak 68

1. Parekatze hauek ezartzen dira foru arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako:

a. Pertsona adoptatuekin parekatzen dira harrera iraunkorren edo adopzio aurreko harreraren hartutako pertsonak, legedia zibilaren arabera eraturiko harreraren kasuan.

b. Adoptatzen duten pertsonekin parekatzen dira harrera iraunkor bat edo adopzio aurreko harrera bat egiten duten pertsonak, legedia zibilaren arabera eraturiko harreraren kasuan.

2. Xedapen gehigarri honetan aurreikusitako parekatzeak zerga honen elementu guztietan aplikatuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

Foru Arau honetako aginduak, indarrean sartzen denetik sorturiko egitate zergagarriei izango zaie aplikagarri. Lehenago sortutakoak aurreko legeriaren arabera erabakiko dira.

Bigarrena.

⁶⁷ Paragrafo hau maiatzaren 10eko 1/2018 Foru Arauaren II. tituluko 6. artikuluko hemezortzi apartatuak indargabetu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2018/05/17ko GAO).

⁶⁸ Xedapen gahigarri hau urtarrilaren 17ko 1/2014 FORU ARAUAREN xedapen gahigarri bakarrak gehitzen du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko 3/1990 Foru Araua -urtarrilaren 11koa- aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2014/01/21ko GAO).



1. Foru Arau hau indarrean sartu baino lehen kontrataturiko bizitzaren gaineko aseguru polizen onuradunak martxoaren 23ko 5/1987 Foru Arauak ezarritako zerga errejimenera bil daitezke haiei dagokienez.

2. Gainerako gaietan martxoaren 23ko 5/1987 Foru Arauak ezartzen zituen salbuespen eta murrizketen babespean eskuratutako eskubideek iraun egingo dute. Eskuratutako eskubidetzat, Foru Arau hau indarrean sartu aurretik egiazki erabiltzen hasi direla egiaztatzen direnak soilik joko dira, igurikapen soilak ezin eskuratutako eskubidetzat har daitekeelarik.

Hirugarrena.

Goian xedututakoa arren, Industria Banketxeetako kaxa bonuen eta 1962ko azaroaren 29ko Dekretu-legeak aipatzen dituen negozioetako herentzia, legatu edo dohaintzen bidezko eskurapenak salbuetsirik geratuko dira, kausagileak edo dohaingileak 1987ko apirilaren 1a baino lehen eskuratu izan balitu, beti ere.

Aurreko pasarteak aipatzen dituen tituluak amortizatzen badira, amortizazioaren produktua Industria Banketxeetako eta Negozioetako beste bonu butzutan berrinbertitua izan daiteke, eta horrela jarraian, amortizazio eta berrinbertsio egunen artean hilabete baino gehiagoko epea ez badago, beti ere.

Laugarrena.⁶⁹

Foru arau honek 29. artikuluan xedututakoa aplikatzearen ondorioetarako:

—Ez dira metatuko salbuetsita dauden dohaintzak eta kostu gabeko gainerako «inter vivos» eskualdaketak.

—Metaketa egiten den unean aplikagarria den araudiari jarraiki zehaztuko dira taldeak.

Bostgarrena.

Foru Arau honetako 31. artikulua aipatzen duen gaia erregelamenduki erregulatzeari ekin bitartean, sujeta pasiboek azaroaren 7ko 543/1988 Foru Aginduan onartutako eredu aurkezteko obligazioa izango dute, zergari atxikiriko kopuru, gauza edo eskubide baliagarriari buruzko egintza edo kontratua edukiko duten agiriekin batera, edota horren ezean, Foru Arau honek aipatzen dituen egintza zergagarriak dauzkan aitopen batekin batera, hurrengo epe hauetan.

⁶⁹ Xedapen iragankor hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUaren 2. artikuluko hamahiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).



a) “Mortis causa” eta bizitzaren gaineko aseguruen eskurapenak direnean sei hilabeteko epean kausagilea hiltzen den egunetik aurrera kontatuta.

b) Gainerako kasuetan epea hogeitamar lanegunetakoa izango da egintza sortu edo kontratua egiten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Hala ere, aitorten epea amaitu aurretik, bulego likidatzaileari luzapena eska lekiok “mortis causa” transmisioak dauzkan agiriak edo aitortenak aurkezteko, sei hilabeteko epe berri baterako.

Luzapena emateak, automatikoa izango dena, berekin ekarriko du agiria likidaziora aurkeztu den egunera arte dagokion berandutza interesa ordaintzeko obligazioa.

Luzapen epea amaiturik agiriak aurkeztu ez balira, behin-behineko likidazioa luza liteke, Foru Diputazioak bere esku dauzkan datuetan oinarriturik, legozkiok zehazpenen kalterik gabe.

Seigarrena.⁷⁰ (indargabetua)

Zazpigarrena.

Foru Arau hau indarrean sartzen denez geroztik, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren jestio eta likidaziorako eskumena Foru Arau honetako 34.1. artikulua aipatzen dituen organoei esleituta egongo da, likidaziora alde aurretik aurkeztutako agiriak direnean ezik, kasu horretan aurkeztu zireneko bulegoen eskumena mantentzen jarraituko delarik behin betiko likidaziora arte.

Zortzigarrena.⁷¹ Sozietate gardenen erregimen iragankorra.

Foru arau honek 2.bis artikulua 1 apartatuko 2. arauan xedatutakoa eragotzi gabe, zergadunaren interesen gune nagusia Gipuzkoan dagoela zehazteko garaian kontuan hartu gabe geratuko dira, baita ere, martxoaren 18ko 3/2003 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga aldatzekoak, lehen eta bigarren xedapen iragankorretan ezarritakoari jarraiki egotzitako oinarriak, gardentasun fiskal profesionalaren erregimenera bildutako sozietatei dagozkienean izan ezik.

⁷⁰ Xedapen iragankor hau apirilaren 23ko 3/1996 Foru Arauaren xedapen indargabetzailearen 1. apartatuak indargabetu du. Foru arauak Zergen Foru Arau Orokorra zati batean aldatzen du. Aldaketa foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (1996/05/06ko GAO).

⁷¹ Zortzigarren Xedapen iragankor hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAREN I Kapituluako 5. artikuluko bigarren apartatuaren hiru zenbakiak gehitu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.



AZKEN XEDAPENAK

Lehena.

Foru Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, hortik aurrera matxoaren 23ko 5/1987 Foru Araua. derogaturik geratuko delarik, baita bertan ezarritakoari aurka egiten dioten aurreko xedapenak ere.

Bigarrena.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onartu bitartean lurralde amankomunean indarrean dauden erregelamenduzko aginduak aplikatuko dira, Foru Arau honetako aginduei aurka egiten ez dieten heinean.

Hirugarrena.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauek zerga honetako salbuespenak, oinarri zergagarrien murrizketak, oinarri likidagarriaren tramoak eta tarifa tipoak alda ditzakete.

Laugarrena. (ezabatua).⁷²

⁷² Amaierako 4. xedapen hau Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu du. 1996ko uztailaren 10etik aurrerako ondorioak ditu.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Apirilaren 5eko 7/1991 FORU ARAUA, premiazko neurri fiskalei buruzkoa (1991/04/15eko GAO; akats zuzenketa 1991/05/08a).*
 - 8. artikulua 19. artikulua aldatzen du.
 - 9. artikulua 21. artikulua aldatzen du.

- *Uztailaren 2ko 3/1992 FORU ARAUA, izaera tributarioko zenbait neurri hartzen dituen, eta Sozietate, Ondorengotza eta Dohaintzeen gaineko zergen eta Lursailen Balio Gehikuntzaren arauteri erregulatzaileria aldatzen duena, baita Inbertsiorako Pizgarri Fiskalen Arauteria ere (1992/07/07ko GAO)*
 - Bere 2. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 5. artikuluari 5. zenbaki berri bat gehitzen dio.
 - 17. artikulua 2. zenbakia aldatzen da.
 - 19. artikulua 3. zenbakia aldatzen da.
 - 19. artikulua 4. zenbakia ezabatzen da eta 5 eta 6 zenbakiak 4 eta 5 zenbakiak izatera pasatzen dira.
 - 20. artikulua 1 zenbakia aldatzen da.
 - 21. artikulua aldatzen da.
 - 39. artikulua 3 zenbakia aldatzen da.
 - 40. artikuluari paragrafo berri bat gehitzen zaio.

- *Maiatzaren 19ko 41/1992 FORU DEKRETUA, zeinaren bidez Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia, Europako Elkarleen Araudi eta Direktibetara zenbait zergapenezko kontzeptu egokitzeari buruzko*



abenduaren 16ko 29/1991 Legean aurreikusitakoari egokitzen bait zaio, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen eta Dohaintzen gaineko Zergei dagokienez. (1992-06-03ko GAO).

- 13. artikulua 18.1 artikulua aldatzen du.

- *Uztailaren 2ko 3/1992 FORU ARAUA, zerga alorrean zenbait neurri hartzen dituen eta Sozietateen, Oinordetza eta Dohaintzen eta Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko zergen araudian eta Inbertsiorako Pizgarri Fiskalei buruzkoan aldaketak sartzen dituen.. (1992-07-07ko GAO).*
 - 2. artikulua 17.2 artikulua aldatzen du

- *Otsailaren 1eko 24ko 3/1994 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuaren 1994rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 21/1993 Legea eta neurri fiskalak eman, funtzio publikoaren erregimena eraberritu eta langabeziaren aurka babesteko abenduaren 29ko 22/1993 Legean jasotako neurri fiskaletara egokitzen duena.. (1994-02-14ko GAO).*
 - 11. artikulua 39. artikulua aldatzen du.

- *Martxoaren 2ko 2/1995 FORU ARAUA, Gipuzkoako Herrialde Historikoaren 1995erako Aurrekontu Orokorrak onartzeari buruzkoa (1995/03/20ko GAO)*
 - Bere hirugarren xedapen gehigarriak 19. artikuluko 1. apartatua aldatzen du.

- *Azaroaren 2ko 109/1995 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako herrialde historikoko zerga arauteria uztailaren 4ko 19/1995 Legeak Nekazaritza Ustiapenak Modernizatzeak jasotako zerga neurrietara egokitzen duena (1995/12/04ko GAO).*
 - Bere xedapen indargabetzaileak 3. artikuluko 4 eta 5 apartatuak eta 19. artikuluko 2 apartatua ezabatzen ditu, 19. artikuluko 3., 4. eta 5. apartatuak 2. 3. eta 4. apartatuak bihurtuz.



- *Uztailaren 4ko 7/1996 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergarena (1996-07-10eko GAO).*
 - Xedapen indargabetzaile bakarrak amaierako 4. xedapena indargabetzen du

- *Abenduaren 23ko 13/1996 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1997rako Aurrekontu Orokorrak onartzeari buruzkoa. (1996-12-31ko GAO).*
 - 3. xedapen gehigarriak 25.a) artikulua aldatzen du.

- *Maiatzaren 23ko 3/1997 FORU ARAUA, Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren 3/1990 Foru Araua, urtarrilaren 11koa, aldatzen duena. (1997-06-02ko GAO).*
 - 1. artikulua 4., 5., 11.1 a), 11.1.b), 19., 20., 21., 27. eta 40. artikulua aldatzen ditu.
 - 2. artikulua 39.2 artikulua ezabatzen du.

- *Azaroaren 18ko 78/1997 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abuztuaren 4ko 38/1997 Legearen bitartez Euskal Ekonomi Itunean egindako aldaketara egokitzen duena (1997-12-03ko GAO).*
 - 19. artikulua 2. artikulua aldatzen du.

- *Zergen 1/1985 Foru Arau Orokorra zati batean aldatzen duen azaroaren 11ko 6/1998 FORU ARAUA.. (1998-11-18ko GAO).*
 - Lehen xedapen gehigarriak 24. artikulua aldatzen du

- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1999rako Aurrekontu Orokorrak onartzeari buruzko abenduaren 21eko 7/1998 FORU ARAUA. (1998-12-29ko GAO).*
 - Laugarren xedapen gehigarriak 4.3 artikulua gehitzen du



- *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 FORU ARAUA. (1998-12-31ko GAO).*
 - 8. xedapen gehigarriak 3. artikulua aldatzen du.

- *Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA.(1999-12-31ko GAO).*
 - 4.artikuluak 19. artikulua 2., 3. eta 5. apartatuak, eta 21. artikulua aldatzen ditu.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 FORU ARAUA. (2001-02-16ko GAO)*
 - 4. artikulua 1 apartatua, 11. artikulua 1. apartatuko c) letra, 19. artikulua 3 eta 5 apartatuak, 21. artikulua eta 29. artikulua 2 apartatu aldatzen ditu. Eta 4. apartatua gehitzen dio 38. artikuluari.

- *Uztailaren 6eko 24/2001 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren. (2001-07-16ko GAO)*
 - Bere 8.artikuluak 8.1 artikulua aldatzen du.

- *Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 FORU ARAUA. (2002-05-20ko GAO)*
 - Bere 3. Artikuluak 19. Artikuluko 2,3 eta 5 zenbakiak eta 21. Artikulua aldatu ditu; eta 19. Artikuluari 6 zenbakia gehitu dio.

- *Urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duena (2003-02-06eko GAO).*
 - Bere 6 artikuluak 2.artikulua aldatu eta 2.bis artikulua erantsi du.

- *Martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUA, ondoko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen duena: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga,*



Sozietateen gaineko Zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga. (GAO,56 zki.a, 2003-03-24 koa).

- Bere Bosgarren Kapituluak 19. artikulua, 2, 3 eta 5 apartatuak, 21. artikulua, 24. artikulua eta 25. artikulua aldatu ditu.

- *Abenduaren 15eko 20/2003 FORU ARAUA, izatezko bikoteen zerga erregimenari buruzkoa. (GAO 2003-12-22).*
 - Bere 4. artikulua honako prezeptu hauek aldatu ditu:
 - 4.artikuluaren 2.apartatua.
 - 5.artikuluaren 4.apartatua.
 - 11.artikuluaren 1 apartatua.
 - 13.artikuluaren 1 apartatua.
 - 20.artikuluaren 1 apartatua.
 - 26.artikuluaren 3 apartatua.
 - 32.artikuluaren 3 apartatua.

- *Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16).*
 - Bere 5. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu:
 - Bere Lehenengo apartatua 2.artikuluaren izenburua aldatu du eta 2. artikulua 1 apartatua amaierako beste paragrafo bat gehitu dio.
 - Bere Bigarrenengo apartatua 2.bis artikulua 1 apartatuko 2. araua eta 19. artikulua 5 apartatua aldatu ditu eta Zortzigarren Xedapen Iragankorra gehitu du.
 - Bere Hirugarrenengo apartatua 23. artikulua 1 apartatua aldatu du.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2005. Urterako aurrekontu orokorrak onartzeari buruzko abenduaren 23ko 9 /2004 FORU ARAUA. (2004-12-31ko GAO).*



- Bere hirugarren xedapen gehigarriak 19. Artikulua eta 21. Artikulua aldatzen ditu.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO)*
 - Bere amaierako laugarren xedapenak 17. artikulua 1. apartatua eta 40. artikulua aldatu ditu.

- *Zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 FORU ARAUA (2005-11-03ko GAO).*
 - Bere 6. Artikuluak hurrengo xedapenak aldatu ditu: 5. artikulua, 19. artikulua 1. apartatua, 23. artikulua 1. apartatua eta 32. artikulua 3. apartatua.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2006. urterako Aurrekontu Orokorra onartzeari buruzko abenduaren 26ko 12/2005 FORU ARAUA. (2005-12-30ko GAO).*
 - Bere hirugarren xedapen gehigarriak 19. Artikuluaren 2, 3 eta 5 apartatuak eta 21. artikulua aldatzen ditu.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2007. urterako Aurrekontu Orokorra onartzeari buruzko abenduaren 22ko 9/2006 FORU ARAUA. (2006-12-29ko GAO).*
 - Bere bigarren xedapen gehigarriak 19. Artikuluaren 2, 3 eta 5 apartatuak eta 21. artikulua aldatzen ditu.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2008. urterako Aurrekontu Orokorra onartzeari buruzko abenduaren 27ko 10./2007 FORU ARAUA. (2007-12-31ko GAO).*
 - Hirugarren xedapen gehigarriak 19. artikulua 2, 3 eta 5 apartatuak eta 21. artikulua aldatzen ditu.

- *Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA, jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituen. (2008-07-11ko GAO).*



- 2. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 3. artikulua 1. apartatuko c) letra.
 - 8. artikulua 1. apartatua.
 - 10. artikulua.
 - 17. artikuluko 5. eta 6. apartatuak.
 - 36. artikulua.
 - 40. artikulua.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2009. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2008 FORU ARAUA (2008-12-31ko GAO).*
 - Hirugarren xedapen gehigarriak 19. artikulua 2, 3 eta 5 apartatuak eta 21. artikulua aldatzen ditu.

- *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2011. urterako aurrekontu orokorrak onar-tzen dituen abenduaren 23ko 4/2010 FORU ARAUA (2011-12-28ko GAO).*
 - Bigarren xedapen gehigarriak 19. artikulua 2, 3 eta 5 apartatuak eta 21. artikulua aldatzen ditu.

- *Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUA (2011/12/27ko GAO).*
 - Bere 2. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 3. artikuluko 2 apartatua.
 - 4. eta 5. artikulua.
 - 11. artikuluko 4 apartatua.
 - 17, 19, 20, 21, 29, 38, 39 eta 40. artikulua.
 - Laugarren xedapen iragankorra.



- *10/2012 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergarena (2012/12/21eko GAO).*
 - Bere amaierako hirugarren xedapenak 11. artikulua 4. apartatua, 17. artikulua 3. eta 4. apartatuak, 19. artikulua 3. apartatua eta 26. artikulua 3. apartatua aldatu ditu. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1ean jarri diran indarrean.

- *Abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUA, zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituena (2012/12/28ko GAO).*
 - Bere 2. artikulua 5. artikulua aldatzen du.

- *Urtarrilaren 17ko 1/2014 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko 3/1990 Foru Araua - urtarrilaren 11koa- aldatzekoa (2014/01/21ko GAO).*
 - Artikulu bakarrak 19. artikuluko 2. eta 4. apartatuak aldatzen ditu.
 - Xedapen gehigarri bakarrak lehen xedapen gehigarria gehitzen du.

- *18/2014 FORU ARAUA, abenduaren 16koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan zenbait zuzenketa tekniko sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen dituena (2014/12/19ko GAO).*
 - 2. artikulua 19. artikuluko 6. apartatua gehitzen du.

- *6/2015 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren erreformari buruzkoa. (2015/12/24ko GAO).*
 - Amaierako hirugarren xedapenak ondorengo aldaketak sartzen ditu:
 - 1. apartatuak edukirik gabe utzi du 17. artikuluko 3. apartatua.
 - 2 apartatuak 19. artikuluko 5. eta 6. apartatuak aldatu ditu.

- *7/2015 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena (2015/12/28ko GAO).*



- 3. artikulua ondorengo aldaketak sartzen ditu:
 - Lehen ordinalak 3.1 artikuluko a) letra aldatu du, 2015eko urriaren 3tik aurrerako ondorioekin.
 - Bigarren ordinalak 19. artikuluko 5. eta 6. apartatuak aldatu ditu, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- *2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzekoa (2016/11/18ko GAO).*
 - 1. artikulua ondorengo aldaketak sartzen ditu 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:
 - Bat apartatuak 19. artikuluko 1 apartatua aldatu du.
 - Bi apartatuak 23. artikulua aldatu du.
 - Hiru apartatuak 25. bis artikulua gehitu du.
 - Lau apartatuak 25. ter artikulua gehitu du.
 - Bost apartatuak 25. quater artikulua gehitu du.
 - Sei apartatuak 25. quinquies artikulua gehitu du.
 - Zazpi apartatuak 26. artikuluko 1 apartatua aldatu du.
 - Zortzi apartatuak 31. artikuluari 2. apartatua gehitu dio.
 - Bederatzi apartatuak 31. bis artikulua gehitu du.
 - Hamar apartatuak 32. Artikulua 3. Apartatuari azken paragrafo bat gehitu dio.
 - Hamaika apartatuak 40. artikulua aldatu du.
- *2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUA, 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen dituen (2016/11/18ko GAO).*
 - Bere 3. artikulua 38. artikuluko 1 apartatua aldatzen du.



- *2016 abenduaren 15eko 6/2016 FORU ARAUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Foru Arauak aldatzekoa, langileek enpresan parte hartzea bultzatzeko (2016/12/22ko GAO).*
 - Bere 2. artikulua 19. artikuluko 5. eta 6. apartatuak aldatu ditu.
- *2017 abenduaren 26ko 3/2017 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2018. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. (2017/12/27ko GAO)*
 - Bere amaierako bigarren xedapenak 21. artikuluko b) letra aldatzen du 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- *1/2018 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, zerga arau batzuetan aldaketak sartzen dituena (2018/05/17ko GAO).*
 - II. Tituluko 6. artikulua ondorengo aldaketak sartzen ditu:
 - Bat apartatuak 3.1 artikuluarik g) letra berria gehitzen dio a) letran.
 - Bi apartatuak 3.1. artikuluko b) letra.
 - Hiru apartatuak 5. apartatua gehitzen dio 11. artikuluarik.
 - Lau apartatuak 19. artikulua.
 - Bost apartatuak 20. artikuluarik 3. eta 4. apartatuak gehitzen dizkio.
 - Sei apartatuak 23. artikulua.
 - Zazpi apartatuak 25. artikulua.
 - Zortzi apartatuak 25 bis artikulua.
 - Bederatzi apartatuak 25 ter artikuluko 1. eta 2. apartatuak.
 - Hamar apartatuak 25 quater artikuluko 2. apartatua.
 - Hamaika apartatuak 25 quinquies artikuluko 1. apartatua.
 - Hamabi apartatuak bigarren paragrafo bat gehitzen dio 27.1 artikuluarik.
 - Hamahiru apartatuak bigarren paragrafo bat gehitzen dio 27.2 artikuluarik.
 - Hamalau apartatuak 29. artikulua.



- Hamabost apartatuak 31. artikulua.
 - Hamasei apartatuak 31 bis artikulua.
 - Hamazazpi apartatuak azken paragrafo bat gehitzen dio 32.3. artikuluari.
 - Hemezortzi apartatuak indarrrik gabe uzten du 40. artikuluko 4. apartatua.
- *2/2018 Foru Araua, ekainaren 11koa, Ondarearen gaineko Zergarena ((2018/06/19ko GAO)*
 - Azken xedapenetako hirugarrenak ondorengo aldaketak sartzen ditu:
 - Bat apartatuak 11. artikuluko 4. apartatua.
 - Bi apartatuak 17. artikuluko 4. apartatua.
 - Hiru apartatuak 19. artikuluen 3. eta 4. apartatuak.
 - Lau apartatuak 26. artikuluko 3. apartatua.
- *1/2018 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 19koa, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga, oinorde-tzen eta dohain-tzen gaineko zerga, eta Zergen Foru Arau Orokorra alda-tzen dituen, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia ituna onar-tzen duen maia-tza-ren 23ko 12/2002 Legean abenduaren 28ko 10/2017 Legeak sartu dituen aldaketak haien barruan txer-ta-tzeko.*
 - 3. artikuluko 2. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen ditu, 2017ko abenduaren 30etik aurrerako ondorioekin.
- *3/2019 FORU ARAUA, otsailaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen (2019/02/20ko GAO)*
 - 4. Artikuluak ondorengo aldaketak sartzen ditu:
 - Bat apartatuak 19. artikuluen 3. Apartatuko azken paragrafora.
 - Bi apartatuak 24. artikuluko 2. apartatua.
 - Hiru apartatuak 31. artikuluen 1. apartatua.



- Lau apartatuak 31 bis. artikulua ren 1. apartatua.